

EKIALDE HURBILEKO NEKAZARITZA-MORRONTZA.

**Kristo aurreko IV. milurtekotik erresuma
helenistakoetaraino**

**Joseba Rodríguez Zuazua
Geografia eta Historian Lizentziatua**

Antzinateko gizarteetan egoera juridikoa zen gizaki bakoitzaren statusa zehazten zuena. Testuinguru honetan, gaur egun, askatasuna eta esklabutza bereizten zituen marra argi eta garbi agertzen zaigu. Edo horrela iruditzen zaigu. Baina errealitatea bestelakoa zen. Antzinate osoan, K.a. IV. milurtekotik garai helenistakora arte, marra hori lauso bihurtzen duten errealitate asko agertzen dira, askatasun eta esklabutzaren artean zeuden egoerak, alegia. Artikulu honetan, Antzinate osoan, Ekialde Hurbilean agertutako horrelako adibide batzuk aztertuko ditugu.

In Antiquity, juridical status was the fact that determined personal status in society. In this context, today, it seems to us that the line that separates freedom from slavery is obvious and clear. But, in fact, reality was very different. In Antiquity, from 4th millennium B.C. to the age of Hellenistic Kingdoms, there are some realities that make this line between slavery and freedom diffused. In this paper, we are going to study some of those status that appeared in the Near East.

I. Sarrera.

Gure ikerketaren eremua oso zabala da eta, iraupenez, oso luzea. Bi ezaugarri hauek zenbait arazoren abiapuntu dira. Alde batetik, eskualderik zabalena izanik, Ekialdetik hasita gure ikerketa Persiarren Inperioko Indus ibaiaren mugatik Siria-Palestinara iritsiko da Mendebaldean. Iparraldetik gaurko Armenia eta Amur-Daria ibaitik. Basamortua eta nekazaritzarako baliagarriak diren lurak banatzen dituen mugatik, Hegoaldeko muga Persiako Golkoan eta Siriako basamortuan jartzen dugularik. Eskualde zabal honetan egoera ez da bera esparru osoan, baldintza geografikoen eraginda. Lauak diren eskualdeekin batera, Mesopotamia adibidez, oso alde menditsuak daude, Tauro, Antitauro eta Zagro mendikateak, besteak beste. Desberdintasunok eragina izango dute gizarte desberdinetan, beren ezaugarriak zehaztuz. Desberdintasun geografiko hauetan zenbait bizimodu aurkituko ditugu, nekazari hutsak direnen ondoan, nekazaritza garatuarekin, erdi ibiltariak diren nekazari abeltzainak ere aurkituko ditugu.

Beste aldetik, gure ikerketaren denbora-luzapena lau mila urtekoa da, K.a. IV. milurtekoetik erromatarrek eskualde zabal honen mendebaldea menderatu zuten arte, K.a. I. mendean. Denbora luze honetan eskualde guztietan bilakaera nabarmena ikus dezakegu. Hasierako komunitate txikien egituratik persiarren inperio erraldoia eratu arte, beronen jauregi eta hirien sare-egiturarekin. Gizarte-mailaketari dagokionez, hasierako berdintasunetik nekazari-morrontza orokorra ikusi arteko bilakaera oso luzea izango da.

Baina, badago honi lotua dagoen beste arazo bat. Laburki azaldutako bilakaera hau ez da leku guztietan modu berean gertatu, ezta batera ere, gertatu den lekuetan. Mesopotamiako hegoaldeko garapen goiz eta azkarrarekin batera, badaude Anatolia

erdiko eskualde menditsuetan bilakaera hau berandu ezagutuko duten beste esparru batzuk.


Arazo hauek guztiek ikerketa orokor bat egiteko oztopo handiak dira Bati baino gehiagori galdera hau sor dakioke: nola egin, orduan ikerketa orokor bat hain egoera eta bilakaera desberdinak dituen honen moduko eskualde zabalari buruz? Egia da desberdintasunak handiak direla, baina badago, nire ustez behintzat, eskualde oso hau lotzen duen aspektu garrantzitsu bat: alde guztietan eboluzio bat jazo da, nahiz eta une eta era desberdinetan. Lehenago edo beranduago amaiera bera izan da: nekazarien “morrontza orokorra”, K.a. I. mendearen bukaeran. Eskualde osoa egitura beraren menpe dago, unitate politiko desberdinetan zatituta egonik ere: erromatarren menpe, mendebaldean; partiarren menpe, ekialdean, bi esparru nagusi hauen arteko muga Mesopotamian kokaturik dagoela eta beraien artean Armenia erresuma txikia.

Hau da, bada, gure ikerketaren gaia: nola gertatu da morrontzara daraman bilakaera hori, itxuraz hain desberdinak diren eskualdeetan? Zein dira eboluzio horren ezaugarriak eta sortutako egiturenak? Azterketa hau egiteko, lehen aipatutako arazoez gain, badago beste bat, oso garrantzitsua, ikuspegia alda dezakeelako: gurekiko urruntasuna. Mundu zabal hau aztertzerakoan, zenbait puntu ulertezinak egiten zaizkigu. Ez iturriek beharrezko argitasunik eskaintzen ez digutelako (hori ere askotan gertatuko zaigu); baizik eta gizarte hauentzat garrantzitsuak diren kontzeptuak ulergaitzak edota ulertezinak egiten zaizkigulako. Orduan, gure adimenera eta gure kontzeptuetara “erakartzen” ditugu, gure kontzeptuak erabiliz, horrela ikuspegi osoa aldatu eta arazoak konpondu bainoago handiagoak bihurtzen zaizkigu. “Feudalismo”, “morrontza”, “esklabotza” kontzeptuek, esaterako, guretzat esanahi zehatza dute eta gizarte hauetarako erabiltzean, gure kategoriek eta ikuspuntuek egoera iluntzen digute eta bide okerretik garamatzate.

Orduan, zer egin? Ez da lan erraza, inondik ere. Gure abiapuntua izango da, ditugun datuen arabera, Ekialde Hurbileko nekazarien egoera, “komunitatea” aztertzea, eta hortik aurrera kanpoko eragileek, jauretxeek, jauregiek eta hiriek berauetan izan zuten eragina. Azterketa horretan zehar, sortzen diren egoera bereziak zehaztuko ditugu, beren ezaugarriak, ahal den neurrian, argi utziz. Horrela, gure lanak bere helburuak betetzen baditu, gai izango gara ulertzeko zein zen Antzinateko idazleek hain hiztegi ambiguo erabiliz islatu nahi zuten errealitatea.

Gero zehatzago aztertuko duguna hobeto ulertzeko, aurretik azterketa ekonomiko orokorra egiteari beharrezko deritzot. Azterketa honek badu abiapuntu bat: “Neolitoko Iraultza”, Pleistozenoa bukatu bezain laster hasi zena. Ez dakigu ziur zein izan ziren eboluzioaren arrazoiak, baina K.a. VIII. milurtekoetik (edo, agian, lehenagotik) Ekialde Hurbil osoan egitura ekonomiko berri baten aztarnak nonahi aurkitzen ditugu. Poliki-poliki, biztanleria finkatzen hasi zen, eta nekazaritza eta abeltzaintza jardura ekonomikorik garrantzitsuenak bihurtu. Biztanleria mendietan eta ibarretan talde txikietan eratu zen, esparru geografiko osoa sare baten barruan antolatuz. Herrixka bakoitzak esparru ekonomiko itxia osatu zuen. Bertan, beharrezko elikagai eta tresneria guztia ekoitzita, merkataritzaren beharrik ez zegoen, edo haren beharra oso txikia eta mugatua zen. Harremanak oso murriztuak eta bereziak, oso eskasak ziren, zerbait lortzeko (gatza, adibidez) beste modurik ez zutenean. Herrixka eta komunitate bakoitza ekonomikoki zeharo autonomoa zen. Bizitzeko aski zena ekoitzez, ez zegoen lan-banaketa zehatzik, komunitatekide guztiei baitzegokien elikagaiak eta tresnak ekoiztea, nahiz eta, orduko, “langile bereziak” sortu, batez ere erlijio mailan eta sortzen hasia zen metalgintzan, baina ez zuen oraindik gizarte barruko banaketarik ekarri.

Mesopotamiako hegoaldean, ordea, K.a. IV. milurtekoaren hasieran, eta, batez ere, bigarren erdialdean, aldaketak sortzen hasi ziren. Lan-banaketaren garapena azkarrago egin zen eta talde ekonomiko berriak sortu ziren: eskulangileak. Garapen hau arinagoa zen lekuetan biztanleria biltzen hasi zen gune jakin baten inguruan, jauretxeen inguruan. Jauretxeak gune erlijiosoak izateaz gain, gune ekonomikoak ere baziren. Bertan, eta beraien inguruan, ekonomia berri bat sortzen hasi zen: lan-banaketaren eta trukearen ekonomia, hain zuzen ere. Ez dugu pentsatu behar, hala ere, merkataritza-ekonomia sortu zenik, gure gaurko ezaugarriekin behintzat. Truke-ekonomiaz mintzo naizenean, jauretxeek sortutako dinamikaz ari naiz. Dinamika horretan, trukeak



beharrezkoak ziren talde desberdinen artean, baita tenplu edo beste gune ekonomikoen artean ere. Ekoizpena, orduan trukerako birmoldatu zen. Hau dugu gure ikerketaren eremua, Ekialde Hurbila eta Ertaina. Oso eskualde

zabala eta ikuspegi geografikotik aztertuta ezaugarri nagusi bat duena: euri kopuru urria, zeinak basamortua eragiten duen eta gizakiaren bizimodua zeharo baldintzatu.

Jauretxeen inguruan bildutako jende kopuruek eta ekonomia berriak beste gertaera berri bat sorrarazi zuten: hiria, hain zuzen ere. K.a. III. milurtekoaren hasieran, Mesopotamiako hegoaldea hiri-sare batez osatuta zegoela esan daiteke.

Egoera berri honek berezko ezaugarriak ditu, garrantzitsuena, eta azken finean oinarritzakoa, lan-banaketa da. Hemendik aurrera, giza talde bakoitzak (oraindik ez

ditugu giza maila hauek klase sozialtzat jo behar, gaur egungo irizpideen arabera, behintzat) bere eginkizun zehatza izango du. Talde handi bat, dudarik gabe, ehuneko laurogei baino handiagoa, nekazariak osatuko dute, elikagaiak eta eskulangintzarako beharrezkoak diren produktuen ekoizpenaz arduratuko dira: larrua, artilea, lihoa, eta abar. Beste talde bat eskulangileek osatuko dute; ekonomia garatzen den heinean handiagotuko da eta bere baitan lanak zehaztuagoak izango dira. Azkenean, hirugarren talde bat dago, hasieran jauretzearen inguruan buru gisa agertuko direnak, eta gero jauregian, komunitateko eta jauretxe/jauregiko buruak, burokratak, eta abar.

Lan-banaketa honek ekonomia osoa aldatuko du. Ekonomia berria zabalduko da, nekazariak ez dute jadanik beraientzat soilik ekoitziko; izan ere, sortu berriak diren talde hauek mantendu behar dituzte. Ekonomia berri honek komunitateena, lehen itxia zena, zabalaraziko du. Komunitateak eta gune ekonomiko berriak “merkataritza-harremanen” bidez lotuta geratuko dira. Baina jauretzeek lehenengo eta jauregiek geroago, merkataritza-harremanak mundu osora zabalduko dituzte. Nahiz eta harreman hauek komunitateei zuzenki eraginik egin ez, sortuko dituzten dinamikak eta beharrek berauetan eragin handia izango dute. Lehentxeago azaldutako eboluzioa ez zen leku guztietan batera gertatu, ezta bide berberari jarraituta. Mesopotamiako hegoaldean, K.a. IV. milurtekoan zehar hasi bazen ere, eta ondorengo bi milurtekoetan zehar garatu, gainerako lurraldeetan beranduago gertatu zen.

Ekonomia berria beste gertaera bati dago lotuta: “hiri-iraultza”ri, alegia. Dirudienez, hiriak, ureztatzeak eskatzen zituen betebeharrei erantzuteko sortu ziren, horregatik, hasieran behintzat, ureztatzea eta hiri-garapena bat etorriko dira¹. Horrela, alde lehorretarako hain beharrezkoa den teknika hau erabili zen eskualdean (Mesopotamiako hegoaldean) sortu ziren hiriak, “Uruken aroa” izeneko epe

¹ MATHIAE, P.(1988): “ El hombre y el entorno”, in S. MOSCATI (arg.), *EL alba de la Civilización. Sociedad, economía y pensamiento en el Próximo Oriente Antiguo*, Ediciones Cristiandad, Madril, I, (35-166), 71-72.

protohistorikoan (K.a. 3400-3000). Lehendik sare bat osatuz, sakabanatuta zeuden herrixkak hirietan bildu ziren eta bilakaera aurrera zihoan heinean, K.a. III. milurtekoan zehar, Mesopotamian herrixken kopurua gutxitu zen. Bide honetan ekonomian ez ezik gizarte-arloan ere aldaketa nabarmenak gertatu ziren. Hiriak, hasieran jauregien inguruan, gero jauregienenean, lan-banaketaren sendotzea ezagutuko du, eta handitzen den heinean bere eragina nekazaritza-inguruan gero eta handiagoa izango da, nekazaritza-egitura guztiak aldatuz. Baina eredu honek ez du balio Ekialde Hurbil osorako; izan ere, Mesopotamiako iparraldera zabaldu zena, beste egoera bat izan zen. Iparraldean ez zegoen ureztatzeke premiarik eta, dirudienez behintzat, erlijioak ez zuen hegoaldean bezalako eragin handirik, jauretxeen eragina askoz murriztuagoa izan zen hirien sorreran. K.a. III. milurtekoan zehar ez dugu beste inon Sumerrekoa bezalako eredurik ikusten, hiriak zabaltzen eta handitzen badira ere. Ebla edo Mari kasuak, esaterako, salbuespentzat jo ditzakegu, beren garapena merkataritzari zor baitzioten. Beraien kokagunea, Siriako iparraldean, Eufrates ibaiaren arroan, Palestina, Anatolia, eta beste lekuetatik zetozen bideen lotura izatea litzateke garapenaren arrazoia.

Sumerretik at hiri-garapena jauregi-garapenaren zabalkundeari lotuta dago. Lugalzagesi (K.a. 2340-2316) erregeak eskualde oso hura menderatzeko lehen saioa egin eta gero, jauregi-egitura lehenengoz Akadeko Sargon-ek (K.a. 2334-2279) eta, ostean, haren ondorengoek zabaldu zuten, eta gailurra Urreko III. Dinastiarekin (K.a. 2112-2004) lortu. Mesopotamia osoa eta Siriako iparraldeko zati bat ere jauregi-sare batez osatuta gelditu zen, erregeek jauregi-sare horren bitartez eskualde osoa menderatuz. Jauregi-sare hau zela-eta, Ekialde Hurbil osoan jauregiak ikusi ahal izango ditugu K.a. II. milurtekoaren hasieran, nahiz eta orduko Urreko III. Dinastiaren inperioa oroitzapena besterik ez zen.

Orain arte esandakoak, hala ere, irudi oker bat iradoki diezaguke, alegia, hiriak eta ekonomia berria jauregi-egituraren ondorioa izatea. Irudi okerra izango litzateke, ordea. Hiriak eta ekonomia berria jauregi-egiturarekin zabaltzen direla badiogu ere, ez dugu mendetasun-harremanez hitz egin nahi. Itxuraz, hiriak eta berauei itsatsita dagoen ekonomia berria jauregiak finkatuta dauden lekuetan agertzen bazaizkigu ere, ez dugu ahaztu behar jauregi-egiturak duen haien beharra. Hiri-egitura sendoa errotuta ez dagoen lekuetan, jauregi-egitura bera ere oso ahula izango da eta ezin izango du iraun. Alderantziz, sendoturik dagoen lekuetan, arazo politikoak badaude ere, iraungo du. Orduan, jauregien eta ekonomia berriaren arteko sinbiosiaz hitz egin dezakegu.

K.a. II. milurtekoetik aurrera, jauregi-egitura Ekialde Hurbil osora zabaltzen zen bitartean, Mesopotamian aldaketa nabarmenak gertatzen hasi ziren. Urreko III. Dinastiaren porrotaren ondoren, eta berarekin batera bere jauregi-sarearena, jauregiak bere nagusitasun bakarra galduko zuen, edo, hobeto esanda, galtzen hasi zen. Bere nagusitasunari eutsiko dion arren, ezin izango du galarazi giza pribatuen esku-hartzea ekonomian, bere kontrolpetik at. Nahiz eta askotan jauregiko kargudunak izan, beren kabuz aritzen ziren. Babiloniako Hamurabi-ren (K.a. 1792-1750) garaiko ekonomia-eredua oso ezberdina izan zen, orain arte ikusi dugunarekin alderatuta. Ekonomiaren arlo eta puska handiak zenbait “jauntxo”ren eta “nekazari”ren eskuetan zeuden. Baina, askotan, jauregi kargudun gisa, jauregi-egiturarentzako “lan bereziak” egiten zituzten, merkataritza, adibidez. Ekonomiaren pribatizazioaren bideak, hala ere, zabalik jarraitu zuen. Persiarren garaiko Babilonia aldeko “enpresariak” oso ezagunak ditugu mailegu-emaile, administratzaile eta merkatarik bezala, askotan jauretkeen jabegoez arduratuz. K.a. VI. mendetik aurrera, txanpona zabaldu zen garaitik aurrera, ekonomiak bide berri bati jarraituko zion eta, orduan, askoz errazagoa izango da merkataritzan aritzea

erakundeen eraginpetik landa. Ekialde Hurbileko hirietan lehen elkarte ekonomiko pribatuak sortuko dira eta honen ondorioak oso garrantzitsuak izango dira.

Ekonomiaren bilakaera hau gertatu zen bitartean, nekazaritza-munduak ere aldaketak jasan zituen. Hiriek eta jauregiek oinarriztat nekazaritza zutenez gero, beraien eragina gero eta handiagoa izango zen nekazaritza-komunitateetan. Herrixkak ez ziren, jadanik, unitate ekonomiko itxiak. Jauregiaren egituran sartu ziren, berarekin gero eta estuagoak izango ziren harremanak mantenduz. Lehenago herrixkek beren beharretarako soilik ekoizten bazuten ere, jauregien menpe sartu zirenetik, haien esanetara makurtu behar izan zuten eta haien eskaerei erantzuteko prest egon beharko zuten. Honen guztiaren ondorioz, barne-antolamendu zaharra suntsitu eta desagertu zen, nekazarien erabateko mendetasunera heltzeraino.

II. Nekazari-komunitateak.

Mendeetan zehar, nekazari-komunitateak, Ekialde Hurbil osotik zabalduak, eskualde honen ezaugarri behinenak izan zirela esan daiteke. Nekazaritza sortuz geroztik, K.a. I. mendera arte, komunitateak nonahi ikusiko ditugu. Ez dira alde guztietan berdinak izango, baina bazituzten ezaugarri komun batzuk eta hauek aztertzen saiatuko gara.

Komunitateak, egitura ekonomiko eta sozial legez, nekazaritzarekin sortu ziren. Paleolito aroan giza taldeak egonik ere, nekazaritza sortu zenean, talde hauek aldaketa garrantzitsu batzuk jasan zituzten, taldekideen arteko harremanak estutuz eta indartuz. Nekazaritzak eskatzen zituen eskakizunei aurre egiteko, azaroan, uztaroan eta ureztatzeko beharra sortu zenean (ubideak, ezpondak, eta abar), lehenago hain beharrezkoak ez ziren elkartasunezko harremanak estutu behar izan zituzten. Horrela, nahiz eta askotan komunitate txikiak izan, bospasei familiak osatuak, haien arteko

harremanak estu-estu gelditu ziren. Talde hauen baitan, familia, zabala edo estua, egoera berri baten aurrean agertu zen: inoiz baino gehiago, familiari zegokion gizarteko eginkizunik garrantzitsuena, bera baitzen gizaki bakoitza eta komunitatearen tartekoa, eta bera baitzen, orobat, komunitatean zegoen oinarrizko unitate ekonomikoa. Tamaina txikiko kokaguneek —txikienak bizpahiru etxez osatuak eta handienak 25 etxez— denetara ehunen bat biztanle (Siria aldeko Alalah-eko artxibategien arabera) izaten zuten, Palestinan bertan, bere ustez heren bat txikiagoak izango zirelarik, herrixka handienen kasuan. Liverani-k, K.a II. milurtekoaren erdialdeko Palestina aldeko komunitateak aztertzean², honako ezaugarri hauek ematen dizkie:

- Bizilekua ez ezik, herrixka hauek senide-unitateak ere baziren, eta horrekin batera, ikusiko dugunez, erabakiak hartzen dituen unitatea.
- Biztanleria bi multzotan zegoen bereizita (jauregiarekin zituzten harremanen ondorioz); alde batetik, nekazari “askeak” (*hupsu*) eta abeltzainak (*haniahhu*); bestetik, erregearen menpekoak. Herri handienetan, gainera, goi-mailako menpekoak ditugu *maryannu* izenekoak, baina hauek orgetatik borrokatzen zuten gudariak ziren, eta, beraz gure azterketatik kanpo daude.

Dena dela, komunitateak ez ziren alde guztietan modu berean eratu; izan ere, desberdintasun handiak egongo dira eskualde batzuetan eta besteetan. Badago bereizi behar den banaketa garrantzitsu bat: nekazari-komunitate egonkorak eta komunitate ibilkariak bereizten dituen. Lehenak ziren benetan nekazari-komunitateak eta gizarte osoaren oinarriak izango zirenak, biztanleria osoaren gehiengoa osatuz. Bigarren motaren garrantzia, zenbait leku zehatzetatik kanpo, askoz txikiagoa da, eta, izatekotan, sortutako inperioak arriskuan jartzeagatik izango da. Ekonomikoki ez ziren oso probetxugarriak; izan ere, basamortuaren ertzetan eta lurralde menditsuetan kokatzen

² LIVERANI, M. (2005): *Más allá de la Biblia. Historia Antigua de Israel*, Crítica, Bartzelona, 25.

ziren eta horrek gune sozioekonomiko nagusietatik kanpo uzten zituen. Hala ere, leku askotan, nekazari egonkorrek utzitako lurraldeez jabetuko dira, Mesopotamian gertatu zen bezala. Dena den, ez dugu pentsatu behar talde ibilkari hauek, besteekin konparatuta, zeharo desberdinak zirenik. Ez horixe! Dakigunez, badirudi barneko egitura antzekoak zituztela eta oso gertaera interesgarri bat hartu behar dugu kontuan: askotan talde hauek erdibitu egiten ziren eta parte batek, egonkor bihurturik, nekazari-taldeekin harreman estuak izaten zituen, haiekin batera herrixka berean bizi izanez.

Bien arteko desberdintasunen artean bat aipa dezakegu: jauregiekiko harreman ezberdina. Nekazari-komunitateak, poliki-poliki, jauregi-egituran sartu ziren, egitura horren oinarri ekonomikoa bihurturik. Ibilkarien komunitateak, ordea, nahiz eta jauregiarekin harremanak eduki, ez beti onak, ez ziren haren barnean sartuko eta ez zuten haren nagusitasuna jasango. Ibilkariak gudari ausartak ziren, baina ez zituzten beren barneko egiturak abandonatu. Borrokatzean, beren jatorrizko taldeetan jardun zuten, jauregi gudarostearen talde laguntzaile legez. Gu, batez ere, nekazari-taldeei buruz arituko gara.

Komunitateak, *URU* hititeraz; *âlu*, akadieraz; eta *kômai* grezieraz, alde guztietan sakabanatuta agertzen ziren. Egoerak oso desberdinak zirenez, komunitateak ere oso desberdinak izan ziren. Mendikateetan eta Anatoliako alde menditsuetan kokaturik komunitate txiroekin batera, ezbairik barik aberatsak zirenak ere aurki ditzakegu ibai iberretan. Hala ere, komunitate guztietan bazegoen oinarritzko erakunde bat, familia, alegia; eta berari zeharo lotua dagoen egitura ekonomiko bat; “etxea”. Familia eta “etxea” txanpon baten alde biak zirela esan dezakegu; ezin dugu inolaz ere bata bestea kontuan hartu gabe ulertu. Familia zen komunitateen funtsezko egitura soziala, eta “etxea” egitura haren oinarri ekonomikoa. Familia, gizaki batentzat, bere bizi-eremua zen, bere baitan eta bere bitartez izaten zituen bere bizitza guztiko giza harreman

guztiak eta bera zen lurrarekin, hau da, baliabide ekonomiko nagusiarekin, lotzen zuena. Familia bakoitzak eta berari lotuta zegoen “etxeak” unitate ekonomiko bat osatzen zuten. Unitate honetan partaideen arteko elkartasunak eta komunitaterako ekoizteak bi ondorio garrantzitsu izango ditu: alde batetik, ez zegoen lan-banaketarik, sexuak eta adinak eskatzen zutenetik at; beste aldetik, ekonomia itxia zen, ia ez zegoen beste komunitateekin harreman ekonomikorik, salbuespenak salbuespen. Ekoizitakoa, batez ere, komunitatearen baitan kontsumitzen zen.

Bertan egiten ziren lanak oso sinpleak zirenez, ez zegoen lanetarako talde berezirik sortu beharrik, nekazari bakoitza gauza baitzen lurak lantzeko behar zituen tresna guztiak egiteko. Sexuak eta adinak, hala ere, zenbait desberdintasun eragiten dituzte. Haurren eginkizuna —orain zenbait lekutan ikus dezakegun bezala— abeltzaintzan, artzain, itzain zein unai gisa, murriztuta geldituko litzateke. Zaharrak adin batera helduz gero, lan egitetik at geratuko lirateke, baina horregatik ez lukete komunitatearen barruko prestigiorik galduko, alderantziz, ordea. Haien eragina komunitatean, aholkulari gisa, handia izango litzateke.

Sexuan oinarritutako lan-banaketa bikote mailan koka dezakegu. Batetik, etxe barneko lanak, oihalgintza, etxeko abereak zaintzea, etxe inguruko baratzeak lantzea, eta abar, emakumeen eskuetan egongo lirateke. Bestetik, etxetik kanpoko lanak, urrunagoko lur-sailak lantzea, abeltzaintza nagusia, beste komunitateekin balizko merkataritza-harremanen ardura, eta abar, gizonezkoei zegozkien. Banaketa honek badu salbuespen berezirik, uztaroan emakumeen laguntza behar-beharrezkoa izango litzateke, adibidez.

Oinarrizko ekoizpena lurretik nekazaritza zein abeltzaintzaren bidez lortutakoa izango litzateke. Komunikabideen arteko elkartasunak eta ekonomia itxia izateak lur-jabetza berezia zekarten. Lurra komunitate osoarena zen, ez talde edo pertsona soil

batena. Lurra eta komunitate-egitura ikuspuntu honetatik aztertu behar ditugu. Erdi Asiriaren garaiko komunitate-eredua³ ezagutzen dugu, eskualde osora zabal daitekeena. Eredu honen arabera, komunitatearen lurraldea zenbait zatitan bereiz dezakegu: herrixka bera *âlu qabal âle*; “lur landua”, *ugâr âle*; herrixkatik at zeuden lurrak, *ina eqte*; eta erreserbarako lurra *qaqqr âle*, erromatarrek zeukaten *ager publicus*-a bezalakoa; eta *kutallu*, urrunago kokatua zegoen lur-eremua. Lurraldea mugatuta zegoen eta muga barnean zatiak, *puru*, egiten ziren. Lurraldearen jabegoa, lehentxeago esan dugunez, komunitate osoarena zen. Ideia hau oso eztabaidatua izan bada ere, aldiko egiten ziren lur-banaketek hori frogatzen dute. Diakonoff-ek⁴ adierazten duenez, lur-salmentak egitean saldutako lur zatiaren mugak ez finkatzeak beste arrazoirik ez du. Briant-ek, bere aldetik, K.o. I. edo II. mendeko dokumentu bat aztertzean⁵, lur-banaketa helburu duen batzar orokor baten deia azaltzen digu. Denboraz eta geografiaz, bigarren testu hau Anatoliakoa baita, hain urruti dauden froga bi hauek arestian esandakoa baino ez dute baieztatzen. Hala ere, pentsa dezakegunez, denboraren eraginaz lur zatiak familiei lotuta geratuko ziren, baina honek ez du ukatzen egindako baieztapena.

Herrixka batean ekoizpenerako oinarrizko unitatea “etxea” da, etxeak bere baitan ekonomia oso txiki bat baitu. Gaur egun ezagutzen ditugun nekazari-komunitate itxietan aztertu izan denez⁶, bizitzarako besterik ez dutela ekoizten baieztatu dezakegu. Sahlins-ek dioenez⁷,

...etxe-sistemak helburu ekonomiko murriztuak besterik ez du lortzen, kalitateari kasu eginez eta ez kantitateari. Ekonomia antzinako gizarteetan aktibitate partziala da, edo, behintzat, gizarte zati baten eginkizuna, besterik ez.

³ DIAKONOFF, I. M. (1982): “Agrarian conditions in Middle Assyria”, in *Ancient Mesopotamia. Socioeconomic History*, Liechtenstein, (204-235), 205.

⁴ *Ibidem*.

⁵ BRIANT, P. (1982): «Remarques sur les “*laoi*” et esclaves ruraux en Asie Mineure Hellénistique», in *Rois, tributs et paysans. Études sur les formations tributaires du Moyen Orient Ancienne*, Paris, (93-133), 105.

⁶ SAHLINS, M. (1978): *Economía de la Edad de Piedra*, Madril, 102.

⁷ *Ibidem*.

Hau honela ikusirik, komunitate hauetan gehigarri garrantzitsuak nekez lortuko zituztela argi dago. Sahlins-en hitzetan berriz:⁸ Horrexegatik egitura hau behartua izan beharko zen soberakinak lortzeko. Sistema honetan “etxea” ez zen lurraren jabea, komunitatearen bitartez, guztiena dena lortu ahal izaten zen. Baina lurrarekin harreman estuak zituen. Lurra banatu barik zegoen lekuetan, familiak ez zuen inolako oztoporik lurraz baliatzeko; eta zatituta zegoen lekuan, berriz, zati bat zor zitzaion, aldiko banatzen bazen ere, lehenago ikusi dugun arabera. Dena den, gauza bat argi dago: familiari, komunitatearen baitan zegoenez, ezin zitzaion ukatu lurraz baliatzeko zuen eskubidea. Ez dago ez talderik, ez agintaririk eskubide hori uka diezaiokeenik⁹.

Familia zabalaren artean lurraz banatzean, beste zatiketa bat gerta zitekeen familia nuklear bakoitzari zegokion lur zatia emateko. Zati honetatik lortutako etekinak senideen artean geratzen ziren eta askatasun osoa zuen hartaz baliatzeko. Hala ere, beti egoten zen komunitate barneko elkartasunezko harremani erantzun beharra. Nahiz eta benetako lur-jabegoa ez izan, lurraren erabilearen askatasuna oso handia zen. Baina bazegoen gaindiezineko mugarik: tradizioarenak eta antzinako lege zaharrarenak. Familia baten aita nagusiak kontuan izan behar zituen, ohitura edo lege zarra haustek arazo handiak ekar baitziezazkioken, bere boterea kolokan jarritz.


Lehen esandakoaren arabera, lortutako etekinak erabiltzeko ez zegoen inolako oztoporik, eta honetaz baliatzen ziren beharrezko trukeak egiteko. Txanpon gabeko ekonomia zenez, trukea zen merkataritzarako erabil zitekeen baliabide bakarra. Dakigunez, komunitateen arteko merkataritza-harremanak oso urriak ziren, beharrezkoak ziren zenbait gauza, harri bereziak (sukarria, obsidiana, eta abar), metalak (kobrea, urrea, zilarra...) zituzten helburu merkataritza-harreman hauek. Agian

⁸ *Ibidem*: Ekoizpen-egituraren baitan ez dago gehiago lantzeko bultzatuko duen ezer.

⁹ *Op. Cit.*, 109.

produktu hauek lortzea beharrezkoa litzateke komunitatearentzat, baina nahiko garestiak, zalantzarik gabe, leku urrunetatik ekartzen baitzituzten. Horregatik komunitate osoaren etekinak beharrezkoak ziren produktu hauek lortu ahal izateko. Ez dugu ahaztu behar, gainera, antzinako taldeen artean, opariak zuen garrantzia komunitateen arteko harremanetan eta, baita, familien arteko harremanetan oparia ezinbestekoa zen. Bukatzeko, arlo honetan kokatu behar dugu merkataritzaren garrantzia, baina etekinen erabileraren askatasuna eragiten du.


“Etxeak” unitate ekonomiko gisa nola funtzionatzen zuen ulertzeko haren barneko giza harremanak aztertu behar ditugu. Familia batean, nagusia aita zen, horregatik “aita nagusia” deituko diogu. Bere boterearen jatorria ideologia mailan kokatu behar dugu. Komunitateko kide guztiak, komunitate-ideologiaren arabera, antzinako arbaso baten ondorengoak ziren, familia bakoitza seme baten ondorengoa. Familia bakoitzean, beti zegoen premuaren ondorengoren bat eta premutasuna izaten zen nagusitasunaren jatorria. Arbasoen premu-leinukoak komunitatearen buruak ziren, baina beste familietan beren barneko premutasunak ematen zuen barneko nagusitasuna. Nagusi horren aginduak bete beharra zegoen, baina ohiturak eta lege zaharrak ezin zituen inork hautsi. Familia zabal baten baitan, familia nuklearrak eratzen ziren, piramide itxura duen giza eredu jarritz.



Semea Ia Premua Semea Ib Semea Premua Semea Semea Iia Premua Semea Iib

Ikus dezakegunez, egitura honetan premutasuna da nagusi eta alboko anaiak premuaren pean gelditzen dira, baina egitura nagusia behin eta berriz errepikatuz. Honela komunitatean ez ezik, familia bakoitzean ere hierarkia bat osatzen da.

Honelako gizarte batean, zeharo patriarkala, emakumearen papera oso txikia zen. Ezkontzean, senarraren familian sartzen zen, aita nagusiaren eta bere senarraren menpe. Hala ere, badago aurretik izan zitekeen garrantziaren aztarnaren bat, baina garrantzi handirik gabe¹⁰. Familia zabal baten baitan, familia nuklearretan (gurasoak eta seme-alabak hartzen dituen), komunitatearen egitura errepikatzen zen eta parekotasun-
eskema honen bidez ikus dezakegu:



¹⁰ FALES, F. M. (1988): "La estructura social", in S. MOSCATI (arg.), *EL alba de la Civilización. Sociedad, economía y pensamiento en el Próximo Oriente Antiguo*. Ediciones Cristiandad, Madrid, I, (167-290), 203.

Arbaso honen ondorengoak ←————→ Familia nuklearra

Horrela, komunitate batean hiru maila ikus ditzakegu: komunitatearena, familia zabalarena eta familia nuklearrarena. Hirurak zehazki hierarkizatuta daude eta odol-harremanen bidez lotuak. Komunitatearen iraupenerako nahitaezkoa zen familia zabalaren eta nuklearraren arteko oreka. Familia zabala gordezaleagoa izaten zen, bere baitan aitaren nagusitasun handiagoa izanik, gizakia taldeari lotuago gelditzen zen.

Egitura hau garai haietako testuetatik ezagutzen badugu ere (eta urte askotan zehar ikertzaileek besterik gabe onartu dutena), gaur egun ez da besterik gabe horrela ulertzen. Liveranik Israelgo historia aztertzean¹¹, kolokan jartzen du eredu teoriko gisa. Haren ustez, komunitate txiki hauetako biztanleen arteko etengabeko ezkontzek familien artean senidetasun-loturak sortu zituzten eta lotura hauek eraman zituzten arbaso komun baten ondorengoak zirela onartzera, errealitatean horrela izan balitz bezala. Hala ere, berak onartu egiten du eguneroko funtzionamendurako baliagarria zela egitura hau eta, horrela, juduen artean komunitatearekin identifika daitekeen leinua *mispahah*, familia zabalarekin *bêt'ab* eta familia nuklearrarekin *geber* aurki daitezke, eta hauen guztien gainetik “tribua” (*sebet/matteh*) dugu, eskualde bateko komunitateak biltzen zituena.

Ikusitako egitura ekonomiko eta sozialaren ondorioz, ez da inondik ere giza maila, klase-desberdintasunik. Familiaren egiturak, premuaren inguruan eratuta, desberdintasunak sorrarazten baditu ere, ez dira benetako klaseak, prestigio-desberdintasunak baizik, komunitate eta familien buruzagitzan oinarrituta. Denak berdinak, edo ia berdinak izanik, denek komunitatearen alde jokatu zuten, “berrikeriei” uko eginez, egituraren oinarri ekonomiko-sozialari gogor eutsiz.

¹¹ LIVERANI, M.: *Más allá de la Biblia*...25. eta 70. or.

Horregatik, egitura hau apurtzeko, indarrak kanpotik etorri behar zuen, eta hortik etorri zen. Komunitatearen baitan, hala ere, familiaren egiturarekin batera, bazegoen komunitate osoarena, denen arteko auziak eta erabakiak bere gain hartzen zituen: komunitatearen “egitura politikoa”. “Egitura politiko” hori familiarekin oso lotuta dago. Horretaz dakiguna ez da gauza handia. Dena den, egitura berbera alde guztietan dagoela pentsa dezakegu, eskualde eta garai ezberdinetan agertzen baita.

Greziarrek jakinarazten digutenez, bazegoen komunitateko buru bat: *komarka* deitua. Hamurabi-ren garaian *rabi ânûm* deitua. Honek, noski, bere nagusitasuna bere premutasunari zor zion. Bere ondoan bi batzar agertzen ziren: nagusien, edo hobeto esanda, “zaharren”, batzarra, grekoz *gerousia* deitua, errez pentsa dezakegunez, familia bakoitzaren aita nagusiez osatua, teorikoki behintzat; eta, bigarrena, batzar orokorra biztanle guztien (gizonezkoak, noski) batzarra, greziarrek *ekkllesia* deitua.

Egitura honek II. mendean oraindik bizirik zirauen, lehenago aipatutako informazio-iturrien arabera. Beste aldetik, oso interesgarria da egitura hau Babilonia zaharrea omen zegoen egiturarekin konparatzea. Nahiz eta gure informazio-iturriek jakinarazten digutenerako, K.a. III. milurtekoaren erdian, hiriak jauretxeen eskuetan egon, egiturak oso antzekoak ziren. Dударik gabe, jauretxeek beren nagusitasuna lortu baino lehen egitura politiko hauek izango lirateke nagusienak. Dakigunez, Babiloniako antzinako erakunderik garrantzitsuenak hauek ziren: “zaharren” batzarra *ab(b)a-uru*, *AB+As-uru*; eta gizaki guztien batzarra, *guru^s-uru*. Paralelotasunak ez du azalpenik behar. Liveranik, bere aldetik, II. milurtekoaren erdialdeko Palestinako egiturak aztertzean¹² bi erakunde mota aipatzen ditu: alde batetik, “agureen batzar” bat, *sibuti* edo *abbu* (“aitak”) izenekoa, bere ustez, garrantzirik handienetako familiaburuez osaturik, testuen arabera, gutxienez, 5; eta bestetik, “herri-batzar” bat gizonezko heldu

¹² *Op. Cit.*, 26.

libre guztiek osaturik. Lehenengoa izango zen komunitatearen eguneroko jarduera zuzenduko zuena; bigarrena, ordea, biltzen zenean, ohiz kanpoko erabakiak hartzea izango zuen eginkizun. Bi egitura hauek, Ekialde Hurbil osoan agertzen zirenak, ez ziren “demokratikoak”, baizik eta argi adierazten zuten boterea familia gutxi batzuen esku zegoela, erabakiak hartzen zituztenak. Siria-Palestina aldeko komunitateetan, aipatutako garaian eta jauregiarekiko harremanetarako, *hazanu* edo “alkate” antzeko pertsona bat agertzen zen. Liveraniren azterketari jarraituz¹³, komunitate hauen ezaugarriak nagusienak ondoko hauek ziren: senidetasuna, elkartasuna eta ardura kolektiboa. Barne-elkartasun hau oso erabilgarri izan zitzaion jauregiari komunitate hauek unitate administratibo bihurtzeko.

Komunitate hauen antolaketa sozio-ekonomikoari dagokionez, herri ibiltari eta egonkorren arteko bereizketa baztertua¹⁴, gaur egun antzematen dena beste hau da: komunitate hauetan elkarrekin bizi ziren nekazariak eta abeltzainak, baina beraien arteko desberdintasunak nabarmenak ziren. Liveranik azaltzen duenez¹⁵, Siriako Alalaho ko zerrenden arabera, nekazari eta abeltzainen etxeak zeharo desberdinak ziren, beraien jarduera ekonomiko desberdinak zirela eta. Dena den, nekazarien eta abeltzainen arteko bizikidetzaren une eta leku zehatz batzuetan oso estua zen: gurtzeko leku sakratuak, “fizkiozko” arbasoak, jaiak eta ospakizunak konpartituz.

Komunitate-erakunde hauei komunitate-arazoak zegozkien, lur-banaketak, beste komunitateekin harremanak izatea edota borroka egiteko erabakiak hartzea, eta abar. K.o. bigarren mendean eta Babilonian hain luze irauteak bere indarra erakusten du. Komunitate-egitura zeharo hondatuta zegoenean beraiek oraindik bizirik iraun zuten. Komunitatearen desegituraketa kanpoko erasoen ondorioa izan zen. Horregatik, desegituraketaz hitz egiten hasi baino lehen, beharrezkoa da egitura horiek aztertzea.

¹³ *Ibidem*.

¹⁴ *Op. Cit.*, 28.

¹⁵ *Ibidem*.

III. Jauretxe-egitura.

Jauretxe- edo tenplu-egituraren azterketa egiteak garrantzi handia du bi arrazoirengatik: alde batetik, jauretxeak izan ziren hiriaren “jatorria”. Jatorriaz mintzo garenean, beren inguruan hiria eratu zela esan nahi dugu, eta berarekin batera eratu zen. Beste aldetik, Sumerreko jauretxeak jauregiaren egituraren eredua izango dira. Hasieran, jauregiak jauretxeen menpe sortu zirela esatean, jauretxearen arabera eratu zirela ulertzea erreza da. Sumerreko jauretxearen irudia, Ekialde Hurbil osora zabaldu



zen. Hala ere, jauretxeek ez zuten inon lortuko Mesopotamian lortu zuten garrantzi ekonomikoa, soziala, baita politikoa ere.

Ziggurat izeneko mota izango Mesopotamia aldeko jauretxe tipikoa.

Jauretxeaz eta bere egituraren jatorriaz ez dakigu ezer zehatzik. K.a. IV. milurtekoaren hasieran jauretxeak agertu ziren, gero eta eraikuntza handiagoaz eta beren inguruan hiriak sortu ziren. Lehen azaldutako hipotesiari jarraituz¹⁶, ureztatzeak zituen eskaerak zirela eta, beharrezko lanak zuzentzeko buruzagitza beharrezkoa zenez, eginkizun hori jainkoekin harremanetan zegoen taldeak, apaizeriak, alegia, bere gain hartzeak ez dirudi arraroa. Erljioak gizakiaren bizitzan duen garrantzia kontuan hartzen badugu, apaizeriaren protagonismoa ulerterraza da. Jauretxeak eta apaizeriak gero eta garrantzi handiagoa izan zuten, azkenean, gizarte eta ekonomiaren gune nagusi bihurtzeraino. Beren nagusitasunagatik beren paper ekonomikoa ere handitu zen. Jauretxea eraikitzeak eta elizkizunei lotuta zeuden eginkizunek eskabide ekonomiko handiak izan zituzten. Orduan, jauretxeak beren beharretarako, zuten nagusitasunaz

¹⁶ MATHIAE, (1988: 71-72).

baliaturik, inguruko ekonomia “xurgatzen” hasi ziren, beren menpe jarritz, batez ere eskaintzen bidez. Jauretxeen baitan, eta ondoren hirian, talde bereziak sortuko lirateke, bakoitza bere eginkizun zehatzaz arduraturik, baina denak egitura baten menpe: jauretxearena, hain zuzen ere. Sortutako talde berezi horiek lan-banaketaren ondorio izango lirateke. Talde hauek ez ziren jadanik janari-ekoizleak, beren eginkizunak elizkizunei, kudeatzeari edota eskulangintzari lotuta zeuden. Egoera berri honek ondorio nabarmen bat dauka, talde hauek mantentzeko elikadura eta beste zenbait gauza nonbaitetik atera behar ziren. Orduan, jauretxeak nekazari-taldeak bereganatzen hasi ziren, hots, beren egiturari sartzeari ekin zioten. Aurrerago ikusiko dugunez, azkenean zeharo sartuta gelditu ziren. Besteek jatorrizko komunitateak izaten jarraitzen badute ere, jauretxeen menpe geratu ziren. Honen guztiaren ondorioz, jauretxeak eta hiriak hedatu ziren, baina inguruetako komunitateek zabalkunde honen ondorioak jasan behar izan zituzten. Arkeologiak erakusten digunez, komunitateen kopurua gutxituz joan zen K.a. III. milurtekoan zehar. Jauretxea jainkoen egoitza izanik, lur guztien “jabea” zen eta bere jabego zuzena oso handia zen. Hala ere, ez dugu pentsatu behar jauretxeak lur guztien jabeak zirenik, aberatsak baziren ere, ez zuten hori lortu. Hortxe dugu Lagash hiriaren kasua. Zenbait kalkuluren arabera, nahiz eta hiri-jauretxeen artean garrantzitsuenetarikoa izan, ez zuten osotik ehuneko hogeita hamar baino biztanle gehiago bereganatu, eta lur-esparruari dagokionez, antzeko portzentajea baino ez zuten lortu. Baina, 1954an, Falkensteinek bere artikulu ezagunean finkatu zuen eredia, Sumerreko jauretxeen nagusitasunarena, alegia, guretzat oraindik baliagarria da¹⁷.

Baina, nola antolatzen zen jauretxe-egitura? Rangerri jarraituz gero¹⁸, jauretxearen ekonomia “etxekoia” dei diezaiokegu, eta hala izan zen deitua (é

¹⁷ FALKENSTEIN, A.(1954): “La Cité-temple sumerienne”, *Cahiers d’Histoire Mondiale*, I/4, Neuchâtel, 784-815.

¹⁸ RENGER, J. (1979): “Interaction of temple, palace and ‘private enterprise’ in the old Babylonian economy”, in *State and temple economy in the Ancient Near East*, Leuven, 251.

sumerieraz eta *bitum* akadieraz, grezieraz, *oikos* hitzak duen esanahi berbera). Ondasun guztiak *é* baten baitan zeuden. Delako *é* honen burua *én* bat da eta jauretxeko burua ez ezik, hiriko burua ere bazen. Buru hau ez zen jainko bat, baina bai haren ordezkoa, eta horregatik berak gobernatzen zituen jauretxea eta hiria. Geroxeago jabea adierazteko *lugal* hitza erabiliko zen, eta hauxe izan zen Sumerreko lehen erregeak, Lagasheko Urukaginak (K.a. 2350) hartu zuen titulua.

Hirien hasieran jauretxea izango litzateke izen horrekin zegoen eraikuntza bakarra eta gero, bere inguruan, beste “etxeak” sortuko ziren¹⁹. Hipotesi honi jarraituz, oso puntu interesgarrira hel gaitzke: hasieran jauretxearen kudeaketa beste “edozein etxetakoa” bezalakoa izango zen. “Etxe” honetan “ahaide nagusia” jainkoa edo jainkosa izango zen, edo hobeki esanda, haren ordezkoa, “apaiz nagusia”. Hipotesi honek badu bere zentzua jatorrizko antolamendua kontuan hartzen badugu: nekazaritza sortu zenetik, berarekin batera ekoizpen era berri bat sortu zen, bere oinarria senide taldeak izanik. Pentsa dezakegunez, gune erlijioso berriak sortu zirenean, beren ekonomia-eredua senideena izango zen, horregatik eredu ekonomiko honi “etxe ekoizpen era” izena ematen zaio.

Hipotesi honekin jarraituz, eta ezagutzen ditugun datuen arabera, berriki sortutako egitura horretan, bere barneko dinamikak eraginda, antzinako egitura aldatzen hasi zen. Jainkoekin harremanetarako betidanik legokeen taldearen ondoan (ez da gehiegikeria suposatzea talde horien jatorria komunitateen familia nagusien ahaide izango liratekeela, edo, behintzat, haiekin harreman estuak izango lituzketela), beste talde batzuk ere sortuko ziren. Jauretxeek beren eginkizunetarako eskakizun berriak izango lituzkete eta jende berri bat beharrezkoa izango litzateke: abeslariak, irudigileak, tresnagileak, eta abar. Hauetariko asko beste lekuetan “jainko esklabo” izenaz ezagunak

¹⁹ SOLLENBERG, E. (1975): “The temple in Babylon”, in *Le temple et le culte*, 252.

izango dira, baina berauen egoera ez da guk ezagutzen ditugun esklaboenarekin konparatu behar. Haien artean bi dira guri gehien interesatzen zaizkigunak: burokratak eta oinarrizko baliabideak ekoizten zituztenak. Horrela jauretxearen baitan giza mailak sortuko lirateke, gero eta konplexuagoak ziren eskakizunei erantzun egokia emateko. Jauretxearen botere ekonomikoa gero eta handiagoa izango litzateke, batez ere esanahi erlijiosoarengatik jauretzerik nagusia: Nippurrekoa, Lagashekoa edo Urrekoa.

Egoera berria finkatu zenean, K.a. III. milurtekoaren hasieran, Sumerreko ekonomia osoa jauretxearen tenpluaren egituraren menpean zegoen. Jauretxearen esku zegoen lur kopuru osoaren zatirik garrantzitsua. Biztanleriari dagokionez, Lagash hiriak erakusten digun egoeraz baliaturik, heren bat zegoen jauretxeei zuzenki lotuta. Beste bi herenek, erlijioa zela eta, jauretxeekin oso harreman estuak zituzten, baina baita ekonomikoak ere, eskaintzen bidez, alegia. Nagusitasun horrek ez zuen mendetasun osoa suposatzen. Jauretxeen egituraren kontrol zuzenetik at zeudenek zehar-mendetasun bat baino ez zuten pairatu behar.

Zaila da azaltzea nola eratu zen jauretxearen jabegoa. Pentsa dezakegunez, komunitateen baitan jauretxeak egitura ekonomiko bezala sortu zirenean sinismenez baliatuko ziratekeen. Ideologikoki, lur guztiak jainkoenak lirateke eta biztanleria osoa jainkoen “morroi”. Orduan, ez zatekeen zaila izango lur zati handi batez “jabetzea” zuzenki lantzeko, eta, horrela, jauretxearen beharrak ase. Bide hau hasiz gero, aurrera jarraitzea ez zatekeen zaila izango. Horrela jauretxeek inguruetako lur eta lagun guztiak “xurgatuko” zituzketen.

Ez dakigu, ezta ere, zehatz-mehatz, nolakoa zen jauretxe baten barneko egitura, baina, dakigunaz baliaturik, ondorio interesgarriak atera ditzakegu. Lurrak hiru motatakoak izan zitezkeen:

1.- *Gán-en*, “Jaunaren soroa”, jauretxeek beren beharretarako zuzenki lantzen zituzten lurak.

2.- *Gán-kur* (*eqlum-kurummatum*), “elikadura soroa”: jauretxean zeuden partaide eta kargudun guztiei ordain gisa ematen zitzaizkien lurak.

3.- *Gán-úru-la* (*éqlum erreskutum*), “soroa”, jauretxeak errentan utzitako lurak²⁰.

Lur hauek lantzeko zenbait langile talde ezagutzen ditugu. Lagasheko *aBa-u* jauretxearen adibidea daukagu eta guretzat ereduia izan daiteke²¹. Lur hauek menpekoek lantzen zituzten, era batera edo bestera. Emakume esklabo batzuekin batera, *gin-damu* izenekoak, bazeuden mendetasun maila desberdinetako taldeak. Horietariko batzuk guztiz menderaturik zeudenak, *igi-nudus*, *Gán-en* lurak lantzen zituztenak, baina batzuetan gudarako ere deituak izaten ziren. Hauen ondoan *il* izenekoak ditugu, *eramelak*, berezitasunik gabeko langile laguntzaileak; *igi-nu-dus gis-kin-ti-me*, ortuariak, hauek ere askotan eraikuntzetarako eta gerretarako deituak. Hauen mendetasun-egoera neurtzea, horrek zentzurik balu, ez da erraza, baina batzuei behar zituzten elikagai guztiak ematen bazizkieten, mendetasun osoan zeudelako izango litzateke, ez baitzuten beren lurak lantzeko aukerarik, agian jauretxearentzat egin beharreko lanek galarazten zitelako. Beste batzuei, ordea, janariaz gain, kantitate murriztuagoa bazen ere, lur-sailak ematen zizkieten, agian *Gán-kur*⁶ izeneko lurak; *Gán-úru-la* izeneko lurak lantzeko aukera ere ahaztu gabe. Egoera honek “askatasun handiagoa” erakutsiko luke.

²⁰ SZLECHTER, E. (1958): « De quelques considérations sur l'origine de la propriété foncière privée dans l'ancien Droit Mésopotamien », *Revue Internationale des Droits de l'Antiquité*, tome V, (121-136), 122.

²¹ TYUMENEV, A. I. (1982): “The working personnel on the state of the temple of *a-Ba-ú* in Lagash during the period of Lugaland and Urukagina (25th.-24th. Cent. B.B.)”, in *Ancient Mesopotamia. Socioeconomic History*, Liechtenstein.

Talde hauen sorreraz zehaztasunik ez dago, baina badira harrigarriak izan daitezkeen bi puntu: alde batetik, dirudienez, beharrezkoa zenean agintariak komunitateko kide batzuk, hau da, oraindik “aske” zirautenak, hartzen zituzten jauretxeetarako eta hauen baitan geratzen ziren betiko; beste aldetik, batzuk edo asko, maizter gisa, jauretxearen egituraren partaideak baziren, zorren ondorioz, gero eta menderatuago geratzen ziren. Horrela, jauretxeen mendekoen kopurua hazi egiten zen eta barruan zeudenak gero eta egoera menderatuago batean.

Dirudienez, jauretxearen zerbitzuan zuzenki zeudenak ez omen zeuden oso egoera larrian, aldiko jasotzen zituzten elikagaiak bizitzeko nahikoak baitziren. Egoera hau dela eta, Lagash-eko Lugalanda erregeak (K.a. 2370) jauregiaren boterea jauretxeen kolkotik indartu nahi izan zuenean, herria matxinatu zen, arrazoi erlijiosoz gain, matxino kopuru handi bat jauretxeen menpe zegoen eta hauen ahuleziak beren egoera okertu ez ote zen beldurrak ere bere eragina izan zuen.

Esan dugunez, jauretxean lan egiten zutenen jatorria komunitatea zen. Ekonomikoki, ez dirudi egoera nabarmen aldatzen zenik komunitatetik tenpluaren egituraren menpera pasatzean, bai ordea bere egoera sozialean. Komunitateko kidea izateak gizakiaren bizitzari zentzu bat ematen zion. Komunitatean egonik, bazuen bere nortasuna familia-egitura batean, baita partaide izateari zegozkion eskubideetan. Jauretxearen egituraren baitan sartuz gero, menpeko bihurtzen zen. Baina jauretxeen jokaeran joera bat antzeman daiteke, beren lur guztiak *Gán-kur⁶* (*eqlum-kurumatum*) eta *Gán-uru-la* (*eqlum-erresku-tum*) bihurtzea, alegia, jornalarien eta maizterren bidez landuak. Joera hau zela eta, onuradunek, poliki-poliki, lur hauen jabe bihurtzeko ahaleginak egin zituzten eta lehentxeago jauretxearen menpean zeudenak, giza talde zehatz batzuen menpe geratu ziren.

Orain arte azaldutakoa Mesopotamiako hegoaldeari dagokio. Beste aldeak ezezagunak zaizkigu. Egia da jauretxeak eta beren egiturak alde guztietara zabaldu zirela: honen lekuko Anatoliako hiri sakratuak ditugu. Guk helenismoaren (K.a. IV. mendetik K.a. I. mendera arte) garaikoak ezagutzen ditugu. Mesopotamiakoak bezain garrantzitsuak ez baziren ere, beren jabegoa oso handia zen, nekazari-komunitateak barne.

Zehaztasun askorik ez badakigu ere, gauza batzuk ziurta ditzakegu:

1.- Oso ezaguna da jauretxeen garrantzia erlijio mailan ez ezik, gizarte eta ekonomia mailan ere. Ekialde Hurbil osoa jauretxez josita agertzen zaigu eta, gehienak, Mesopotamiako ereduari jarraitzen zioten.

2.- Dirudienez, Mesopotamiatik at nagusitasuna hasieratik jauregiak izan zuen eta horrek jauretxearen garapenean eta jauregiarekiko harremanetan bere eragina izango du. Mesopotamiako hegoaldean hiri-tenpluak jauregiaren menpe gelditu arren, askatasun zabala gordetzeko gauza izan ziren. Beste lekuetan, ordea, Anatolian ere, ez zuten “askatasun” egoera hori ezagutu eta beren eragina ez zen inoiz hain handia izan. Helenismoaren garaian, Anatolian bertan, jauregien lur kopurua, esku pribatuetan zegoena baino hedapen txikiagoa izan zen²². Hala ere, jauretxeak aberastasun handiak pilatzeko gauza izan ziren, lurak ez ezik zilarra eta urrea ere beren ekonomiaren oinarri baitziren. Hauetaz baliatuz, zenbait jauretxek mailegatzeari ekin zioten eta lehen txanponen egile gisa ikus ditzakegu²³.

Jauregiekiko harremani dagokienez, aldez alde eta denboraz denbora, oso aldakorak izan ziren, aipatutako mendetasun-egoera horretan era desberdinetan egonik. Adibiderik argigarriena Babiloniako jauretxeena izan daiteke. K.a. VI. mendean erregeek zergarik eza ematen zieten, horretaz gain ugari ziren erregeek eginiko

²² LOZANO, A (1984): *La esclavitud en Asia Menor helenística*, Oviedo, 143-144.

²³ LIPINSKI, E. (1979): « Les temples neo-assyriens et les origines du monnayage », in *State and temple economy in the Near East*, Leuven, (565-588), 569.

dohaintzak. Persiarrekin, ordea, egoera zeharo aldatu zen. Jauretxeek dohaintza jasotzeari utzi zioten; alderantziz, erret administrazioari zenbait produktu, abere eta eskulangile eman behar izaten zizkioten²⁴. Gainera erregearen burokratak arduratzen hasi ziren jauretxeen kudeaketaz²⁵. Horrela, jauretxeen erregearekiko mendetasuna erabatekoa bihurtu zen. Honek, ostera, ez dakar inolako garrantzi ekonomikoaren galerarik. Lur-jabe handiak izanik, lur horiek lantzeko nekazariei uzten zizkieten. Nekazariok, beren aldetik, askotan, ez zuten ez lurrik ezta lurra lantzeko tresnarik ere. Orduan, jauretxeen kudeatzaileek ematen zizkieten baliabide guztiak eta horregatik jauretxeen zerrendetan agertzen zaizkigu menpeko gisa²⁶.

IV. Jauregi-egitura.

Jauregi-egitura Ekialde Hurbil osoan egitura ekonomikorik garrantzitsuena izan zen, eta beste biak, komunitatea eta jauretze-egitura, bere menpe jarri zituen. Jauregi-egitura hiriaren hedapenarekin lotu behar dugu eta honetatik sortu ziren oinarri ekonomikoekin. Alper-alperrik izango lirateke jauregiari buruzko azalpen guztiak, aurretik sortutako “hiri-iraultza” kontuan hartzen ez badugu.

Mesopotamiako hegoaldean delako “iraultza” hori K.a. IV. milurtekoan zehar gertatu bazen ere, jauregiaren nagusitasuna K.a. III. milurtekoan zehar ikus dezakegu, batez ere bigarren erdialdetik aurrera. Jauregia “hiri-iraultzaren” ondorioa izan zela esan daiteke. Jauregiari lotuta dagoen sistema ekonomikoa aztertzen badugu, zenbait puntu ikus ditzakegu. Aurreko nekazaritza-komunitateekin konparatuz, izugarritzko aldaketa nabari da: jauregiaren sistema ekonomikoaren oinarria lan-banaketa da; komunitateetan, ordea, ikusi dugunez, lan-banaketa sexuari eta adinari lotuta dago. Jauregiaren sisteman,


²⁴ DANDAMAYEV, M. (1982): “ Achaemanid Babylonia”, in *Ancient Mesopotamia. Socioeconomic History*, Liechtenstein, 309.

²⁵ *Ibidem*: 310.

²⁶ DANDAMAYEV, M. (1979): « Le statut juridique de l'ikuru neo-babylonien », in *Terre et paysans dépendants dans les sociétés antiques*, Paris, 155.

bakoitzak bere eginkizun zehatza du eta zehaztasuna handiagoa izango da sistema garatzen den heinean. Baina, nola gerta daiteke lan-banaketa hau jauregian? Bat-bateko aldaketa izan ote zen? Ezinezkoa dirudi. Aurretik hiriaren sorrera beharrezkoa izan zen, bertan sortzen baita lehen lan-banaketa, jauregiaren sistemaren oinarria izan zena.

Hasieran, jauretzeen inguruan, sortu baziren ere, hauek ezin izan zioten sortutako dinamikari jarraitu. Lan-banaketa ekonomiak bere eskakizunak zituen (merkataritza-bideak menpe edukitzea, gero eta lur gehiago hazten ari zen biztanleriarentzat, lurrak ureztatzeko ubideak menderatzea, eta abar). Orduko idatzizko lekukoen arabera (K.a. XXVIII. mendetik aurrerakoak, alegia), hiri desberdinen arteko liskarrak eta gerrak oso ugariak izaten ziren. Orduan sortu zen botere politiko berri baten beharra. *Ensi*-a deituriko pertsonaiak —botere politiko eta militarren burua—



irtenbide egoki bakarra zirudien. Sortu bezain laster, bere inguruan egitura berri bat eratzen hasi zen: jauregiarena, hain zuzen ere.

Jauregi-egituraren berezko joera gero eta handiagoa izaten zen. Horren ondorioz, Akadeko Sargon erregeak bere inperioa Mediterraneo itsasoraino ere heldu zen.

Hasieran tenpluarekin oso harreman estuak izan zituen, dudarik barik, bere menpe, bere “adar” armatua baitzen. Baina, astiro-astiro, egoera politikoa zela eta, indartu egin zen, eta Lagashen Lugalandak botere politikoa ez ezik jauretzeen botere ekonomikoa ere bereganatu nahi izan zuenean, argi zegoen egitura bien artean bat nagusituko zela borroka labur baten ondoren. Urukaginak, batzuen ustez jauretzeetako apaizeriaren eta komunitateko buruen laguntzaz (azken hauek jauretzeekin harreman estuak zituzten), Lugalanda baztertzea lortu zuen. Hasieran, jauretzeen nagusitasuna berreskuratzeko asmoa agertu bazuen ere,

laster *lugal* (“errege”) titulua hartu zuen, jauregiaren nagusitasuna betiko jarritz. Hemendik aurrera, jauregiaren eta jauregi-egituraren garapena geldiezina izango da. Lugalzagesik (K.a. 2340-2316) botere osoaz baliatuz, inperio bat sortzeko lehen saioa egin zuen. Berak porrot egin zuen, baina iparralderago, gehiengo sumertarrek osatzen ez zuten aldean, Akadeko Sargonek (K.a. 2344-2279) bere nagusitasuna Ekialde Hurbil osora zabaltzea lortu zuen, lehen benetako inperioa osatuz. Bere ondorengoek bere lanari jarraitu zioten. Azkenean jauregi-egituraren gailurra Urreko III. Dinastiaren garaian gertatu zen.

Hemen dugu Sumerren garaiko artelanik ezagunenetakoa, “Ureko zutoihala”. Bertan Jauregiaren jarduera nagusia agertzen da: GERRA



Garapen honen arrazoia ez da bakarrik politikoa. Jauregiaren egiturak garrantzi handiko aldaketak ekarri zituen. Hasieran bere eragina ez zen

oso sakona izan, komunitate-egiturak, oraindik, oso indar handia erakusten baitzuen. Jauregi-egiturak, bere nagusitasuna lortzeko, lan-banaketa areagotu behar zuen. Jauregiaren garapenak eta hirien arteko liskarrek, batez ere jauregiak inperio bat osatu zuenean, armada bat eskatzen zuten, baita administrazio zabal bat ere. Jadanik ez ziren nahikoak nekazari-talde armatuak; armadek gero eta bereziagoak, baita handiagoak ere, izan behar zuten. Administrazioari dagokionez, egoera antzekoa zen. Ordura arteko jauretze eta jauregi txikien administrazioa, eguneroko irteerez eta sarrerez arduratzen zena, ez zen nahikoa, aldatu beharra zegoen, batez ere inperio handi batez arduratu behar zuenean.

Bi egitura horiek, armada eta administrazioa, sostengatzeko aldaketa ekonomikoak beharrezkoak izan ziren. Hori dela eta, jauregia bere botere ekonomikoa

handitzen saiatu zen, baita lortu ere! Horretarako bere eragina nekazari-taldeetan handitu zuen, komunitate eta lurrak bere barneko egituraren barrurako xurgatuz, eta mendetasun harremanak inposatuz. Horrela, gune garrantzitsuen inguruan kokatuta zeuden komunitateek beren nortasuna eta izaera galdu zituzten berregituraketa horren ondorioz. Hemendik aurrera, gehienek jauregiekiko mendetasun zuzena jasan beharko zuten. Urrutiago zeudenak, komunitate gisa jarraitu arren, zergak ordaintzeko beharrea agertu ziren.

Jauregi nagusiak, Urrekoak esate baterako, menderatzen zuen eskualde osoan jauregi-sare bat osatu zuen. Sare hau izan zen jauregi nagusiaren boterearen ezaugarria eta horrela menderatutako eskualdeari hurbildu zion administrazioaren eragina. Egitura berri horrek aurretik zegoen egitura eta taldeen erasoei aurre egin behar izan zien. Ez dugu ahaztu behar, adibidez, Akadeko Sargonek bere azken urteetan matxinada orokor bati aurre egin behar izan ziola, eta bere ondorengoei ere bai. Aurka zeudenak komunitate eta jauregiaren egiturari lotuta zeudenak ziren, beren botere politikoa eta ekonomikoa kolokan ikusten baitzituzten. Dena den, jauregia garaile atera zen eta Urreko III. Dinastiaren erregeek Mesopotamiako eskualde osoa ez ezik, Siriako iparraldea ere menderatu zuten. Sortutako egituraren irudia hauxe litzateke: egitura osoak olagarroaren itxura leukake, inperio osoa zuzentzen zuen buru handi bat, Urreko jauregia, eta menderatzen zuen eskualde osoa besoen bidez menderatua, beso horiek hiri bakoitzean zegoen jauregia izanik.

Ordutik aurrera, eta betiko, jauregi-egitura finkatuta geratu zen. Nahiz eta K.a.



2004. urtean III. Dinastiaren inperioa desagertu, laster, bere orde, beste batzuk agertu ziren, Babiloniakoa garrantzitsuena izanik. Gainera egitura hau alde guztietara zabaldu zen. Eta hortxe dugu Asirian, Sirian

edo Anatolian hititen inperioa. Botere politiko aldakorra zen, indartsuena ere, Babiloniako Hamurabirena, desagertu zen bere ordezkassitak jarritz, baina jauregia ez zen horregatik desagertu.

Hamurabi, Babiloniako erregea (K.a. XVIII. mendean) errege legegile eredu bihurtu zen. Bertan lehenengo aldiz, modu sistematiko batez, gizartearen funtzionamendua zehaztuta agertu zen, bere Kode famatuari esker.

Jauregiak, beste aldetik, joera garrantzitsu bat erakusten zuen: bere boterea zabaltzea, alegia. Jauregia sortu zenetik, inperioak nonahi eta noiznahi agertu ziren: Akad, Ur, Asur, Babilonia, Wassukani eta beste hiri asko inperio handien hiriburuak izan ziren. Horrela beren eragina gero eta zabalagoa eta handiagoa izan zen, baita biziagoa ere. Lehentxeago azaldu dugunez, badirudi jauregiak bizirik irauteko zabaldu behar zuela bere eragina, bere barneko egitura gordetzeko ez ezik, beste arerioen aurrean, beste jauregiak, noski, bere burua defendatzeko. Ekialde Hurbileko eta Ertaineko eskualde osoan jauregiak lehia bizian aritu ziren beren nagusitasuna lortzeko eta beren egitura sozio-ekonomikoa inposatzeko.

Dena den, jauregiak bazuen bere barruan nagusitasun hori kolokan jartzen zuen zerbait. Bere nagusitasuna inposatzen zuen heinean, burokrazia eta armadaren beharra gero eta handiagoa zen. Burokraten eta armadaren ordaina lurra izaten zen. Hasieran, lur-emateak eta betebeharreko funtzioak lotuta zeuden, baina denboraren eraginez, lur horietaz jabetzeko joera nabarmendu zen. Lurren salerosketak eguneroko kontu bihurtu ziren, funtzioak eta lurak ez ziren lotuta egongo. Erregeek ahaleginak egin bazituzten ere, Hamurabik adibidez, lur hauek jabego pribatu bihurtu ziren. Horrela ustekabe bat agertu zen: jauregiaren nagusitasuna gero eta hedatuago egonik ere, menderatuen gainean bere kontrol zuzena galtzen hasita zegoen. Erregeak bere laguntzaileei edo zerbitzariari ordain gisa lurak eta zergarik eza ematean, “jaurerri feudal” baten antz handia zuten “jaurerriak” (historialari askorentzat benetako ezaugarri feudalak zituztenak) sortu ziren (hititen artean edota Asiriako Inperio Berrian, besteak beste).

Hala ere, onuradun hauek jauregiari lotuta jarraitzen zuten, baina ahalik eta etekinik handiena lortzen saiatzen ziren. Jauregi-egituraz baliatuz, komunitateei eskakizun handiak egiten zizkieten. Joera hau, batez ere, K.a. I. milurtekoan ikusiko dugu, Asiriak bere nagusitasuna Ekialde Hurbil osoan inposatzean. Geroztik, joera hau handitu besterik ez zen egin, Alexander Handia persiarren inperioa menderatu arte.

Jauregi-egituraren eragina aztertzean arazo batzuk aurki ditzakegu, egoerak eta aldiak ez baitira berberak eskualde zabal honetan. Horrela ez dira berdinak izango Mesopotamiako hegoaldeko jauregiak eta Asur, Mari edo Ugaritekoak. Zoritxarrez, esan dezakegunak oso orokorra izan behar du, datuen falta dela eta. Hala ere, ikuspegi osoa emateaz gain, berezitasunak azaltzen saiatuko gara. Lehenago esan dugunez, jauregia jauretxe egituratik sortu eta gero agertu zen, eskakizun berriei erantzuna emateko. Ondorioz, jauretxearen menpe agertu zen eta bere egituraketa harena bezalakoa izan zen. Jauretxearen kasuan bezala, jauregiaren jabegoa ere hiru zatitan bana dezakegu:

- 1.- *Gán-en* edo jaunaren soroa.
- 2.- *Gán-kur* (*eqlum-kurummatum*) edo elikadura soroa.
- 3.- *Gán-uru-la* (*eqlum-erreskutum*), edo soroa.

Urreko III. Dinastiako jauregiak bere nagusitasuna inposatu zuenean, ia ekoizpen guztia bere kontrolpean jarri zuen, jauretxeen ondasunak ugariak eta garrantzitsuak izan arren. Zenbait ikerketaren arabera²⁷, lortutako errentak bi motatakoak ziren: lurra lantzetik lortutakoak eta abeltzaintza eta merkataritzatik lortutakoak. Lurrak ez zituen jauregiak zuzenean ustiatzen, lur mota hauek gero eta eskasagoak ziren; baizik eta jauretxeen bidez. Jauregiak bere nagusitasuna ezarri zuenetik, jauretxeak bere kontrolpean edukirik, lehenago hauen lurrak zirenak, bere

²⁷ LIMET, H. (1979): « Le rôle des palais dans l'économie neo-sumérienne », in *State and temple economy in the Ancient Near East I*, Leuven, 235-248.

eskura pasatu ziren. Bere lurak zein jauretxearenak *gurus* izeneko nekazariak lantzen zituzten.

Urreko jauregiaren egituraren abeltzaintzak garrantzi handia zuen etekin handiak lortzeko. Ez dugu ahaztu behar artilea oihalgintzarako funtsezko lehengai denik²⁸. Artilea saltzeaz gain, jauregiak zeuden lantegietarako ere oso baliagarria zen eta merkataritzan etekin ederrak lortzeko aukera ona ematen zuen.

Honen guztiaren ondoren sortzen zaigun ereduak ezaugarri hauek ditu:

1.- Jauregiak lur guztiak, edo gehienak behintzat, bere kontrolpean zituen. Komunitateak oso ahul agertzen ziren eta jauregiaren zabalkundeak bere egitura inposatzen zuen. Komunitatekideek beren barneko egitura apurtuta ikusirik, jauregiaren lurak landu behar zituzten, asko *gurus* langile mota bihurturik. Baina oraindik aske zirautenek zergak eta jauregiak inposatzen zituen eginkizunak eta lanak egin behar izaten zituzten.

2.- Jauregia bere nagusitasunaz baliatzen zen abeltzaintza eta eskulangintza, eta, ondorioz, merkataritza bere monopolio bihurtzeko.

3.- Lortutako ekoizpenak jauregiaren nagusitasuna finkatzeko erabili ziren, arlo ekonomikoan, politikoan eta sozialean. Ekonomikoki, komunitateak itoz eta bere egituraren barruan sartzeko. Sozialki, jauregiaren egituraren onuradunak komunitatekideen aurrean beren lehentasuna finkatzeko, baita komunitateko buruen aurrean ere. Politikoki, lortutako etekinen bidez egitura politiko sendo bat eraikitzeke arazorik izango ez dutelako. Horrela, jauregiak ez du bere ondoan arerio nabarmenik, beste jauregiren bat ez bada, behintzat. Horregatik jauregiaren porrota ez da sortuko bere baitan, horretarako eraginak kanpotiko etorri beharko du.

²⁸ *Ibidem*: 242.

4.- Jauregiak osotasunerako joera nabarmena erakusten zuen, gero eta esparru zabalagoak kontrolatu nahirik.

Hauxe izango da hemendik aurrera ikusiko dugun jauregi-egituraren eredua, denboran zehar eta leku ezberdinetan aldaketa batzuk ikusten badira ere.

K.a. XVIII. mendean, Babiloniako jauregiaren eredua Urrekoa bezalako zen. Lurrak hiru motatakoak ziren:

1.- *Eqlt-ékallîm* edo *eqlum sa rês êkallîm ukallu*, jauregiak zuzenean kudeatzen zituen lurrak.

2.- *Eqlum kurummatum*, jauregiarentzat egiten ziren lanen ordaina, sal daitezke, gudariei ematen zitzaizkienak izan ezik. Erosleak jauregiari lotuta geratzen ziren, lur hauek funtzioei lotuta baitzeuden.

3.- *Eqel biltim* edo *eqel isiktim, nâsi biltim* nekazariei ematen zitzaizkien lurrak²⁹. Azken mota honetako nekazari hauek txirotutako komunitatekide edo antzinako *gurus* izeneko nekazarien ondorengoak ziren, baina ez ziren maizterrak³⁰.

Lur-sail hauen ondoan, jauretxearenak zeuden, betiko kudeaketa eran eta jauregi-egituraren menpe, baita komunitateen lurrak ere, *eqlum dûrum*, “betiko lurrak”, jauregiaren kontrolpe zuzenetik landa, baina ez bere eraginpetik kanpo. Ikus dezakegunez, ez da ezer garrantzitsurik aldatu, jauregiaren nagusitasuna hain handia ez zela kontuan hartzen ez badugu, ekonomia pribatua orduko hasia baitzen.

Ia aldi bereko beste jauregi-egitura bat ezagutzen dugu, Ugaritekoa, alegia. Egoera ez da berdina eta desberdintasunak nabarmenak dira. Ugarit ez zen inperio handi baten burua, merkataritza-arloan hiri garrantzitsu bat baino. K.a. XIV eta XIII. mendeetan bere botere ekonomikoa oso handia izan zen eta bere eragin komertziala

²⁹ DIAKONOFF, I. M. (1982): “The Rise of the Despotic State in Ancient Mesopotamia”, in *Ancient Mesopotamia. Socioeconomic History*, Liechestein, (173-203).

³⁰ *Ibidem*.

Ekialde Hurbil osora zabaldu zen. Liveranik aztertu du eta irudi interesgarri bat ematen digu³¹.

Liveranik azaltzen duenez, nekazaritza-unitateak bitan banatzen ziren. Lehena hiritik urrun zegoen. Eskualde honetan, komunitate-egitura nagusi zen. Bigarrena hiriaren inguruan kokatzen zen, jauregitik hurbil, baserri osatua *gt* izena zutenak, batez ere ortuak eta mahastiak. Lur hauek Babiloniako jauregiaren *eqlat êkallîm* bezalakoak ziren eta lur mota hau lantzen zuten nekazariak *nâsi bitum*-en antzekoak ziren, ez baitziren maizterrak, baizik eta derrigortutakoak eta jauregia arduratzen zen haien elikaduraz. Liveraniren ustez, *gt* baserrietan lan egiten zuten nekazariak komunitatekideek baino etekin handiagoak lortzen zituzten jauregiarentzat. Nekazari hauek ez zuten familiarik, beraz, lortutakoaren zati handiago bat eskuratu ahal izango zuen. Gainera, lortutako uztak produktu berezietakoak ziren, merkataritzan arrakasta handia lor zezaketenetarikoak: ardoa eta barazkiak. Komunitateetatik lortutako etekinak murriztuagoak izango ziren eta zatirik handiena bertan kontsumitzen zen. Horregatik, jauregiarentzat *gt* izeneko baserriak interes handiagokoak ziren. Hala ere arazo bati konponbidea bilatu behar zitzaion: nekazari hauek, esan dugunez, familiarik ez zutenez, bere kopuruari eusteko edo handitzeko, langileak beste lekuren batetik ekarri behar ziren. Bide bakarra komunitateetatik ateratzea zen, nahiz eta hau jatorrizko komunitateentzat guztiz kaltegarri suertatu. Eskulan-horniketa hau gauzatzeko, Liveraniren arabera, ordaindu gabeko zorrak izango ziren bide nagusia. Beste bide bat indarkeriaren erabilera hutsa zen, eta, nahiko erabilia izan omen zen. Ez dezagun ahantz Mesopotamian ere nekazarien hornikuntza ziurtatzeko indarkeriaren erabilera oso arrunta zela, beraz Ugarit aldean bide hori erabiltzeak ez gaitu harritu behar.

³¹ LIVERANI, M. (1982): « Ville et campagne dans le Royaume d'Ugarit. Essai d'analyse économique », in *Societies and language of the Ancient Near East. Studies in honour of I. M. Diakonoff*, Westminster, 250-257.

Antolaketa honek, argi ikus daitekeenez, komunitateen hondamendia dakar, batez ere Ugarit aldean, erdi basamortua, eta horregatik, zailtasun handiekin ureztatze-programa zabalak egiteko. Izan ere, ez da soilik komunitateen ustiapena zergen bidez, baizik eta ustiapen hori muturreraino eramatea. Ondorioak nabarmenak izan ziren, Liveranik ondoko hauek aipatzen ditu:

- 1.- Komunitateentzako gatazka handia eskatzea.
- 2.- Krisialdia gatazka honen ondorioz.
- 3.- Hiri inguruko eskualdea erabat “antzu” geratzea.

Mesopotamian hori askoz beranduago gertatuko da; izan ere, nekazaritza, ureztatzeari esker, aberatsagoa da eta komunitateak jauregitik zetozen eskakizunei erantzuteko gauza izaten ziren. Jauregiek horren indar handia ez zuten lekuetan, Anatolian esate baterako, ez zuten eragin hori sentiaraziko.

Hala ere, jauregiak bizirik iraun nahi bazuen bere oinarriak zabaldu behar zituen. Oinarri ekonomikoak lan-banaketan eta komunitateetatik lortutako etekinak baziren, bere oinarri politikoak armada eta administrazioa ziren, bi hauek elkarren arteko lotura estuak zituztelarik. Gero eta ugariago ziren gudei aurre egiteko aldiak, eta armada ezinbesteko tresna bihurtu zen. Aurreko milurteko nekazari armatuen taldeak ez ziren jadanik erabilgarri, armada profesionala behar-beharrezkoa zen, talde berezietatik osatuak: zaldunak, guda-gurdietako gidariak eta gudariak, gudari talde iraunkorrak, eta abar. Gainera armada berri honek bere eskakizun bereziak zituen: armak, ezpatak, soinburdinak, lantzak, gurdia, zaldi-tresnak... Hasieran, arma hauek brontzezkoak ziren, baina gero burdinazkoak behar zuten izan. Arma hauek guztiak egiteko eskulangile asko eta prestatuak behar ziren. Honen ondorioz, jauregietan sortu ziren lantegietan eskulangile kopurua handia egoten zen. Beste aldetik, tresna hauek egiteko materialak, askotan, urrutitik ekarri behar ziren, Anatolia, Zipre, Persia edo gaur egungo

Afganistanetik. Behar horrek merkataritza-harreman garrantzitsuak garatzea erraztu zuen, *tamkarum* izeneko pertsonak gauzatuak, eta merkataritza horretarako ere ekoitzi behar... Honen ondoan, ez ditugu ahaztu behar jauregiko politikoez ekartzen zituzten eskakizunak, garrantzitsuenetarikoa prestigio-kontsumoa izanik. Jauregia, bere menpe zituenentzat, eredu gisa agertzen zen, bera zen lortu beharra zegoen aberastasunaren eredia eta xahututako ondasunak ugaritasunaren adierazgarriak ziren³².

Jauregiak jokatu behar zuen politika horretan badago beste alde garrantzitsu bat. Jauregi batek bere boterea erakutsi nahi zuenean, bere armada “erakustez” gain, aberastasun-itxura ere erakutsi behar du. Erakusketa hori oparien bidez egiten zen. Opari horiek politikak finkatzeko erabiltzen ziren, baina merkataritza-funtzioak ere betetzen zituzten. Orduan, helburu nagusia ahalik eta etekin ekonomikorik handiena biltzea, ahalik eta aberastasun mailarik handienaz jabetzea zen. Zalantzarik gabe, aberastasun horren zatirik garrantzitsuenak nekazaritza-mundutik etorri behar zuen. Nola? Zergen bidez. Horregatik behar-beharrezkoa da zerga gaia aztertzea; baina hori egin baino lehen, beharrezkoa da jauretze- eta jauregi-sistemen garapenak izan zituen lehen ondorioak aztertzea.

V. URUKEN MUNDU-SISTEMA.

Jauretze eta jauregien, hots, hirien eragina komunitateetan oso goiz hasi zen nabaritzen, K.a IV. milurtekoan, hain zuzen ere. Guillermo Algazek³³, Immanuel Wallersteinen³⁴ zenbait ideiarri jarraituz, oso proposamen ausarta egiten du, baina kritika batzuk eginez. Wallersteinen planteamendua honako puntu hauetan laburbilduko litzateke:

³² RENGER, J.: *Op. Cit.*, 255.

³³ ALGAZE, G. ((2)2005): *The Uruk World System. The dynamics of expansion of Early Mesopotamian Civilization*, The University of Chicago Press, Chicago/Londres, XIV+190.

³⁴ WALLERSTEIN, I. (1979): *El moderno sistema mundial. La agricultura capitalista y los orígenes de la economía-mundo europea en el siglo XVI*, Siglo XXI de España Editores, 580.

a.- Bilakaera sozio-ekonomikoaren ondorioz, munduko eskualde bateko alde bat, bere garapen ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalaren ondorioz, bere esparrutik ateratzen da eta munduko beste alde batez jabetu eta berrantolatu egiten du bere interesen arabera.

b.- Bere lanaren tesi nagusia hau da: Hego Sumerreko hirien hedapen ekonomikoak K.a. IV. milurtekoaren bigarren erdialdean, Mesopotamiako iparraldean zehar eta eskualde honen inguruan dauden mendikateetan ere, berrantolaketa ekonomiko eta sozial garrantzitsua ekarri zuela, esparru zabal horretan egitura berri bat inposatuz. Wallersteinen planteamenduei jarraituz, Mesopotamia osoa bi esparru nagusitan zatituko litzateke: lehena, hegoaldea, hots, Sumerreko hiriak, Ur, Uruk, Lagash, eta abar, Mesopotamiako “Uruken mundu-sistemaren” bihotza izango litzateke; bigarrena, Mesopotamiako iparraldea eta bere inguruan, ipar eta ekialdean, dagoen eremu menditsua, “mundu-sistema” horren periferia izango litzatekeena, alegia. Lehen alde horrek izango lituzke egitura politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak aurreratuen, eta nagusitasun horretaz baliatuz, periferia bere menpe jarri eta bere beharren arabera berrantolatuko luke, batez ere, lehengaien ekoizle gisa eta produktu manufakturatuen merkatu. Honek, jakina, suposatzen du mundu-sistema honetako bihotzak, hots, Sumerreko hiriek periferia horretako egitura politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak berrantolatuko lituzketela beren interesetara egokitu ahal izateko. Baina puntu honetan Wallersteinen planteamenduetatik urrunduz eta Jack Gallagher eta Ronald Robinson-en³⁵ planteamenduetan oinarrituz, ez du beharrezkotzat jotzen nagusitasun politiko-militarrak, hots, konkista militarra eta kolonizazioa inposatua, goian aipatutako kontrol hori gauzatzeko eta mundu-sistemaren “bihotzak” sortutako egituran asimilatuta geratzeko.

³⁵ GALLAGHER, J. eta ROBINSON, R.(1953): “ The Imperialism of Free Trade”, in *Economic History Review*, 2d series 6, 1-15.

GALLAGHER, J. eta ROBINSON, R.(1961): *Africa and the Victorians*, MacMillan, Londres.

Idea hauetan guztietan oinarriturik, Algazek egiten duen planteamendua puntu hauetan laburbiltzen da: Uruk garaiko gizartearen hedapenak (K.a. IV. milurteko bigarren erdialdean), periferiaren ikuspegitik, eragin desberdinak izango zituela, leku desberdinetako geografia, testuinguru ekologiko eta aurrekari historikoen arabera. Sumerretik hurbil, gaurko Iraneko hego-mendebaldean, eta Mesopotamiako bailaran, ureztatzea posible zen aldean, eragina oso nabarmena izan zen eta benetako kolonizazioaz hitz egin daiteke. Urrutiago zeuden lurraldeetan, Uruken presentzia desberdina da. Ditugun datuen arabera, Uruk kokalekuak puntu estrategikoetan agertzen dira, batez ere gurutze-bideetan eta ibai desberdinek bat egiten duten lekuetan. Hemen kontrola ez zen hain zorrotza izan, baina honek ez du esan nahi eraginkorra ez zenik³⁶.

Baina Algazeren lanetik gehien interesatzen zaiguna hedapen honen ondorioak dira. Konkista militarrik egon ez bazen ere, Uruk kulturaren hirien presentziak Mesopotamia inguruetako herrien bilakaera ekonomiko, sozial eta politikoan eztabaida ezinezko aldaketak eragin zituen.

Algazeren ikerketen emaitzen arabera, Sumerreko hirien hedapena ez zen konkista- eta kolonizazio-prozesu bat, europarrek Ameriketara edo Afrikan XV. mendetik aurrera egin zuten bezala, guztiz bestelakoa izan zen. Sumertarrak zenbait puntu estrategikoren jabe egin eta handik inguruko lurraldeetara beren merkataritza-sareak zabaltzen zituzten. Gune horietaz baliaturik, gauza izan ziren beraiek behar baina ez zituzten produktuen (metalak, harri bitxiak...) merkataritza-sareak antolatzen. Merkataritza-eredu berri honek berehalako eragina izan zuen sare horren barruan sartutako lurralde eta gizarteetan. Algazek berak aitortzen duenez, ez dugu lekuko zuzenik jakiteko nolakoa izan zen antolaketa horren eragina; baina ezagutzen ditugun

³⁶ ALGAZE, G.: *Op.Cit.*, 9-10.

beste adibide historiko batzuk erabiliz³⁷, honako ondorio hauek gertatu zirela plantatzen du hipotesi gisa:

1.- Periferian:

- Bertako eliteek, harreman berriez baliaturik, beren boterea sendotu eta handitu egin zuten, bai beren menpekoen aurrean, bai inguruetako beste eliteen aurrean ere.
- Elite hauek beren botere berriaz eta hego Mesopotamiako harreman ekonomikoez baliaturik, beren funtzio antolatzailea indarturik ikusi zuten, printzipioz, harreman ekonomiko berriei egokitzeko; baina, baita, beraien interesei ere. Jakina, egokitzapen-prozesu hori ezin zen izan hegoaldeko hirien kopia hutsa; izan ere, oso bestelako egoerak zeuden. Baina, zalantzarik ez dago merkataritza-sare berrien barruan kokaturik geratu ziren komunitateek, handik aurrera, beraien egitura sozio-ekonomikoak eraldatuta behar izan zituztela. Zenbateraino izan ziren aldatuak esatea oso zaila da, baina gertatu, gertatu zela baieztatu dezakegu.
- Berrantolaketa horren ondorioz, eta IV. milurtekoaren amaieran Sumerreko hiriek izan zuten krisialdia aprobetxatuz³⁸, botere politiko berri eta sendoak sortu ziren, III. milurtekoan zehar (testuek behin eta berriz azaltzen diguten bezala) Mesopotamiako estatu berriei aurre egiteko gauza izan zirenak.

Zalantzarik ez dago, botere politiko berri hauek, politikoak ez ezik ekonomikoak ere izan behar zutela eta, ondorioz, gizartearen antolaketaren mailan aldaketa handiak ekarri zituztela. Besteak beste, botere indartsu horiei eusteko elite politiko-sozialaren eta komunitateen arteko harremanak aldatuko ziren, komunitateen kalterako. Modu batera

³⁷ ALGAZE: *Op. Cit.*, 98-99.

³⁸ Krisialdi honen ondorioz, III. milurtekoaren hasieran sortu zen ezagutzen dugun Sumer historikoa, idazkeraren asmakuntzari lotuta.

edo bestera, harreman mota berri horiek gero eta hurbilago egongo ziren Mesopotamiako hegoaldeko hirietan sortu ziren ereduetatik.

2.- Mesopotamiako hegoaldean, sistemaren bihotzean: Aldaketen garrantziari begiratuta, merkataritza-sistema honen ondorioz garrantzitsuenak sistemaren periferian gertatu baziren ere, bihotzean ere aldaketak oso garrantzitsuak izan ziren. Algazek ondoko hauek aipatzen ditu, besteak beste³⁹:

- Harreman ekonomiko berriek sakoneko aldaketak eragin zituzten Sumerreko hirietan. Aurretik hasita zeuden joera eta bilakaera areagotu egin ziren, batez ere, merkataritzaren funtsa ziren lehengaien eraldaketa-prozesuen eskaera eta hauek kontrolatzeko burokraziaren garapena zirela eta.
- Sistema babesteko ezinbestekoa zen egitura militar sendoa eta garrantzitsua. Sarearen oinarria militarra ez zen arren, zalantzarik ez dago babes militarra beharko zuela, bai periferian kokatutako gunek ez ezik, merkataritza-bideak ere beste lehiakideen aurrean edo beste edozein mehatxuren aurrean babesteko ere. Sarea, zenbat eta zabalagoa, orduan eta behar militarrek handiagoak izango ziren, horrek zituen ondorio politiko, ekonomiko eta sozialekin.
- Merkataritza-harremani buruz ari bagara, harremanak norabide bitaak dira, beraz, Sumerreko hiriek eskuratu nahi zituzten produktuen truke, beraienak eskaini behar zituzten⁴⁰. Horrek beraien egitura ekonomikoa eraldatzea esan nahi du, merkataritzarako beharrezkoak diren produktuak ekoitzi ahal izateko. Hori dela eta, hiri bakoitzak interes berezia izango

³⁹ *Op. Cit.*, 105-107.

⁴⁰ Kontuan izan behar dugu ordainketa ezin zela monetarioa izan. Izan ere, sumertar hiriek ez zuten ekoizten metal preziaturik (urra edota zilarra), beraiek eskuratzeko zabaldu zuten aipatutako merkataritza-sare hori, besteak beste.

zuen bere inguruko lurraldeetako ekonomia-ereduak, batez ere, nekazaritza eta abeltzaintza aldatzeko. Antolaketa ekonomikoa aldatzen zen heinean, egitura sozialak aldatu behar zuten nahi eta nahi ez. Aldaketa nagusia merkataritzako jardura ekonomiko intentsiboan oinarritzen zen sistemaren sorrera izango zen, honen barruan eskala-ekonomia garatu ahal izateko. Prozesu honek eragin sozio-demografiko garrantzitsuak izan zituen Mesopotamiako erdi eta hegoaldean. Bi puntu dira aipatzekoak: alde batetik, migrazio nabarmenak antzeman daitezke Mesopotamiaren erdialdetik (geroko Babilonia aldetik, hain zuzen ere) hegoalderantz, Sumerreko hirietara, alegia; beste aldetik, IV. milurtekoaren erdialdera (Uruk kulturaren hasieran) zenbait azterketaren arabera biztanleriaren erdia baino gehiago, tamainaren arabera, hirizat jo daitezkeen guneetan bizi zen; milurteko honen amaieran, ordea, egoera aldatu da eta hirien inguruan zeuden herrixketan bizi zen biztanleriaren portzentajea nabarmen hazi zen. Hala ere, hirizat har daitezkeen kopurua txikitu zen arren, hauen tamaina nabarmen hazi zen. Honek adierazi nahi digu hazi ziren gune hauek gauza izan zirela beren inguruko beste guneen garapena mugatzeko edo geldiarazteko, beren inguruan menpeko herrixken egitura bat sortzen zuten bitartean.

Sistema hau garatzen zen heinean, ekonomiaren jardura, batez ere, nekazaritza, gero eta intentsiboagoa izan zen. Horrek bi oinarri ditu, alde batetik, ureztatze-sistemen garapena eta hedapena; eta bestetik, eta aurrekoari lotuta, gero eta lur-eremu eskasagoak erabili behar izatea, ingurunea basamortutze-prozesu azkarrean zegoen eskualde batean gaudela kontuan hartu behar dugularik. Ondorioak zein izan ziren

antzematea erreza da: nekazaritzaren produktibitatearen jaitsiera nabarmena; basamortutze-prozesuaren areagotzea (lurrak gazitu egin ziren ureztatze-teknika txarren ondorioz), eskualderik txiroenetan eta sistema osoaren krisialdi orokorra. Krisialdi honen ondorioz, hiririk garrantzitsuenek aurrera jarraitu bazuten ere (Uruk, Ur, Eridu, Lagash, eta abar dira K.a. III. milurtekoko kultura idatzia oparitu zigutenak), hiri hauen inguruan zeuden herrixka eta nekazaritza-gune asko desagertu ziren eta beraiekin beren barne-egitura sozialak nekazaritza-komunitateei lotuak.

K.a. IV. milurtekoaren amaieran “mundu-sistema” honek erabateko porrota izan bazuen ere, oinarriak jarri zituen K.a. III. milurtekoaren bigarren erditik aurrera, hots, Sumerreko hiriek garapen berria izan zutenetik aurrera, inperio-sistema berria sortzeko eta, horrekin, hurrengo milurtekoetan zehar, Ekialde Hurbil eta Ertainean ezagutzen ditugun inperioak: Akad, Uruk III, Babilonia, Asiria, Persia...; eta ez da inolaz ere kasualitatea K.a. IV. milurtekoko “mundu-sistema” honen eremua eta hurrengo mendeetan zehar gauzatuko diren inperio horien eremua berbera izatea.

VI. JAUREGIEN ETA KOMUNITATEEN ARTEKO HARREMANAK: ZERGA.

Zerga izan zen hiru milurtetan zehar nekazari-komunitateak alde batetik, eta jauretxe eta jauregiak, bestetik, lotu zituen lotura nagusia. Izan ere, azken bi egitura hauek eratzean, komunitateena beren baitan sartzeko ahaleginak egin zituzten eta, zalantzarik gabe, lehen urratsa zerga-sistema bat inposatzea izan zen. Handik aurrera, komunitateak unitate fiskalak izan ziren eta beren bizitza zerga ordaindu beharraren menpe gelditu zen. Hamurabiren garaian erregearen ordezkoez esparru edo distritu bakoitzean *sâpirum* izena zuten eta beren eginkizunik garrantzitsuenak zergak biltzea

eta herri-lanak zuzentzea ziren⁴¹. Persiarren garaian, *satrapia* bakoitzean *diozeta* izeneko pertsona bat zegoen eta honen eginkizunik garrantzitsuen ere zergak biltzea zen⁴². Dirudenez, komunitate bakoitzean, erregearen ordezkaria *komarka* bat zen. Horrela, *komarka* horren egoera jauregien eta komunitateen artean bitartekariena egitea zen⁴³. Egiten zuten lanagatik, jauregiak bere buruzagitza indartu zuen. Ikuspegi honetatik, argi dago jauregiari ez zitzaiola inolaz ere interesatzen komunitate-egituradesagertzea edo suntsitzea, alderantziz baino. Komunitateetako buruzagiekin zuten lotura zela eta, bere helburuak lortzeko ez zuen inolako arazorik, alderantziz, komunitateen barne-egiturak laguntzen zion jauregiari bere helburu ekonomikoak lortzen. Hau izan daiteke komunitate barneko antolamenduaren iraupenaren arrazoi nagusietariko bat. Jokaera honen salbuespen bat K.a. II. milurtekoan aurki dezakegu. Dirudenez, Siriako erregeek komunitate bakoitzean beren ordezkari bat jartzen zuten zergak biltzeko⁴⁴.

Arestian esan dugunez, komunitatea, hasieran, unitate ekonomiko itxia zen. Jauregiak, zergak inposatzean, egoera hau zeharo aldatu zuen. Izan ere, zergak ustiaketa ekonomiko garrantzitsua suposatzen zuen. Zergaren ordainketaren ardura komunitate osoari zegokion, greziarrek ardura kolektibo honi *idia* izena eman zioten. Ardura kolektibo honek talde osoari ematen zion ordaintzearen beharra. Zergaren helburua ustiapen ekonomikoa izanik, bi erataria egiten zen. Alde batetik, uztaren etekinaren ordaintzea eta beste zenbait produktu (artilea, guda-gurdiak, frutak, abereak...) ematea izango zen ustiapen ekonomiko zuzena. Beste aldetik, bazegoen beste ustiapen mota bat: komunitateak, jauregiak egindako deiari erantzunez, bere eskulan eskaini behar

⁴¹ DIAKONOFF, M. I.: The Rise of..., 199.

⁴² BRIANT, P.(1982): Communautés rurales, forces productives et mode de production tributaire en Asie Achemanide. In *Rois, tribut, et paysans. Etude sur les formations tributaires du Moyen Orient Ancienne*. Paris, (405-428), 416.

⁴³ *Ibidem*. Seguruenik hau da gorago Liveranik aipatu duen *hazanu* edo "alkatea" (ikus 13 oharra).

⁴⁴ *Ibidem*.

zuen ubidea, harresiak, tenpluak, jauregiak, eta abar egiteko, eta, noiznahi, armadan ere parte hartzeko. Talde militar hauek oso baliotsuak ez baziren ere, jauregiarentzako oso merkeak ziren, eta galtzekotan, errez ordezkari zitezkeen.

Ustiaketak luzez irauteko arreta handiz ibili beharra zegoen. Izan ere, soberakina hain eskasa izanik, gehiegi eskatzeak komunitateen hondamendia ekar zezakeen. Horregatik jauregiaren burokrasia arretaz arduratzen zen komunitate bakoitzari zenbat eska zekiokkeen kalkuluak egiteko. Zenbait jauregitako artxiboek horretaz datu zehatzak eskaintzen dizkigute. Testuinguru honetan bakoitzak ordaindu behar zuena finkatu eta gero, biltze arazoa gainditzeko komunitateen egituraz baliatzea erarik onena zen, berak ordainketaren ardura hartuko bailuke.

Ustiaketa honen oinarrian banaketaren ideia dago⁴⁵. Zergak biltzeak pilaketa-fenomeno bat gertatzen zen, pilaketa honen helburua banaketa zelarik. Banaketa hau jauregiak egina zegoen, noski, eta horrek emango zizkion beren ezaugarriak. Banaketak egitean helburu ezberdinak ikus daitezke: batzuk ekonomikoak dira, bidegintza, ubidegintza, merkataritza, eta abar, beste batzuk, ordea, politikoak, egitura politikoari eusteko, administrazioa, armada, eta abar; beste batzuk erlijiosoak dira, jauregi eta santutegigintza, apaizeria mantentzea, eta abar; eta ezin ditugu ahaztu prestigioari lotuta zeudenak, jauregigintza, luxuzko produktuen ekoizpena... Kontrakoa dirudien arren, helburu hauek ez ziren arrotzak komunitateentzat. Aipatutako helburuen ondorioak oso argi daude, baina besteak ere errez azal ditzakegu. Geroago ikusiko dugunez, ideologiak egitura politikoa eskatzen du eta egitura hori jauregi eta armadaren bidez gauzatzen zen. Jainkoekin harreman onak edukitzea nahitaezkoa zen naturako indarrak alde izateko, uzta onak lortzeko... Prestigiosko helburuek, lehenago esandakoaren arabera,

⁴⁵ LIVERANI, M.(1987): La estructura política. In *El alba de la civilización. Sociedad, economía y pensamiento en el Próximo Oriente Antiguo*. I. Madrid (291-430), 311-312.

ideologikoki komunitateetan sobera ez dagoen itxura ematen zuten, eta ideologiaren ikuspuntutik itxura horrek garrantzi handia zuen.

Hala ere, banaketa hori ikuspegi ekonomiko batetik aztertuta, desoreka nabarmenak ikus daitezke: aipatutako helburu horien arabera, ondasunik garrantzitsuenak jauregi inguruan kokatzen ziren, komunitateak beraietatik sortutako ondasunen banaketatik landa. Horrela, komunitateetatik sortu baina itzultzen ez zen jario ekonomiko bat gauzatzen zen. Gizarte osoak sortzen zituen soberakinak talde txiki baten esku geratzen ziren, gehiengo handi bat baztertuz. Egoera honetatik bi ondorio atera daitezke: alde batetik, Ugariten bezala, ustiaketa, neurri batetik harago izanez gero, jauregi pean zegoen eskualdea, denbora aurrera joan ahala, desegituratuta gelditzen zen, eta honekin batera, baita jauregi-egitura bera ere. Ondorio hau uste dugun baino zabalagoa izan zela pentsatu behar dugu. Jauregi-egitura bere sorterrian, Babilonia aldean, irauteko lekua aproposa izanik ere, handik landa zama izugarria zen inguruarentzako eta hortik zetorren leku askotan ikus dezakegun jauregi-egituraren ahulezia, eta, ondorioz, desagerpena, aztarnarik utzi gabe, Siria-Palestinako jauregiak edo hititen inperioa, adibidez. Zenbait lekutan nekazari-komunitateen desegituraketa gertatu ondoren, bere lekua herri erdi ibilkariak hartzea oso arrunta izaten zen. Honen adibiderik esanguratsuenetariko bat Liveranik berak eskaintzen digu ⁴⁶. K.a. II. milurtekoko Palestina aztertzean, jauregien gehiegizko presioa aztertu du. Honen arabera, presio horrek nekazari libreak (*hupsu* deitutakoak) zorpean jartzen zituen eta, zor horiek kitatu nahian, emaztea eta seme-alabak esklabo bihurtzen ziren, azkenean egoera hori gizonezkoari ere heltzen zitzaizolarik. Egoera hori ekiditeko askok ihes egiten zuten. Dena den, hasiera batean (K.a. XIX. eta XVI. mendeetan batez ere) jauregia bera arduratzen zen arazo honetaz noizbehinka zor guztien barkamena

⁴⁶ LIVERANI, M.: *Más allá de la Biblia*, 31-34.

aginduz⁴⁷. Baina azken mendeetan neurri hau ahaztu egin zen eta nekazarien egoera jasanezin bihurtu zen. Hori dela eta, ihes egitea irtenbide bakarra bihurtu zen. Ihes egindakoei testuek *habiru* deitzen zieten eta, dirudienez, lotu egin beharko genuke juduen lehen izenarekin *'ibrî* (“hebrearra”). Iheslari hauek mendietan, basoetan edo basamortuaren ertzetan babesa aurkiturik eta herri ibiltariekin bat eginez, mehatxu bihurtu ziren eta horren lekuko izango dira Egiptoko faraoiari bidalitako gutunak, Tell el-Amarna-ko artxibategietan aurkitutakoak. Denborarekin talde hauek izango ziren, Brontze Aroaren amaieran, Siria-Palestina aldeko jauregi-egitura osoa desagerraraziko zutenak. Dena den, ez dugu ahaztu behar aipatutako banaketa honen erara gauzatzen zela gizartearen giza mailaketa⁴⁸. Banaketaren onuradunek lortzen zuten gizartearen buruzagitza ekonomikoa eta soziala. Talde hauek, gizartearen zuzendari bihurturik, askotan “feudo” antzeko antolaketa bat sortuko zuten, jauregiaren pentzutan. Gizarte honek ematen digun itxura, ikuspuntu honetatik desberdintasun nabarmenarena da. Eragin honi, gainera, beste bat gehitu behar zaio: zergarik eza, alegia. Fenomeno hau oso zabaldua zegoen eta bere eragina gizartean zergarena bezain garrantzitsua zela esan genezake. Hasieran, denek ordaindu behar zuten zerga hori, bai lortutako etekin ekonomikoetatik, baina baita, beharrezkoa zenean, eskulana emanez ere. Zergarik ezak zabaldu zirenean, erregeek lanak ordaintzeko edo beste helbururen bat lortzeko erabiltzen zuten beste baliabidetariko bat baino ez zen. Arrazoi batengatik edo bestearengatik, bi ondorio nagusi ekarri zituen:

1.- Jauregi-egituraren aurrean, hasierako berdintasuna desagertu zen eta gizartea bitan banatu zen, ordaintzen zutenak eta ordaintzen ez zutenak, hain zuzen ere. Gainera, askotan, azken hauek zergaren fruituak jasotzen zituztenak ziren. Ordainketarik eza

⁴⁷ Tradizio hau izango da juduek jasoko dutena Biblian “Jaungoikoaren urtea” aipatzean, 49 urtetan behin.

⁴⁸ LIVERANI, M. (1976). Il modo de produzione. In *L'Alba della civiltà. Società, economia e pensiero nel Vicino Oriente Antiquo*. II. Torino (3-126), 49.

jauregiko kideen artean zabaldu zen, funtzionarioak, agintariak, gudariak... Sortutako desberdintasuna areagotu egiten zen agintariak zirela kontuan hartzen badugu eta beren aginte-lanak ordaintzeko erregeek lurak ematen zizkietela, eta hititen adibidean bezala, “feudalismoaren” kutsua zuten jaurgoak eratzen zituzten.


Zegarik eza, behin baino gehiagotan, hiri bereziei ere ematen zieten, Babilonia aldeko hiri-tenpluei, hiriburu ohiei, tenpluei... Horrela gune ekonomiko askeak, jauregiaren egituraren eragin zuzenetik at, sortu ziren, eta egitura horren gainbehera areagotuko zuten zenbait lekutan.

2.- Komunitateetan ere eragina handia izango zen. Komunitateko buruei eta gudari ohiei ematean, komunitate barneko desberdintasunak areagotu ziren. Zerga kopurua gutxitzen ez zenez, ordaindu behar zutenentzat —beste guztiak, alegia— zama handiagoa zen eta komunitatekideen egoera larriagotu egiten zen.

Komunitateek haientzat hain kaltegarria zen zerga ordaintzearen arrazoia ulertzeko, oinarrian dagoen ideologia kontuan hartu behar dugu. Ideologia honetan bi aspektu nahasten dira, bata erlijiosoa eta bestea politikoa.

Jauregia nagusitu bezain laster, ideologia berri garatu zuen erregearen eginkizuna zehazteko. Denboran zehar, desberdintasunak ikus badaitezke ere, badago ildo bat, denentzat baliagarria dena. Ekialde Hurbilean erregea, bizirik zegoen artean behintzat, ez zen jainko bat, Egipton bezala. Hala ere, bere izaera jainkoen ordezkari batena zen. Beraz, berari zor zitzaion jainkoena zena, nagusitasuna eta lur-jabetasuna. Bi izaera hauek baliabide politiko-militarrak eta ideologiak erabiliz lortu bazituen ere, ondorioak beti berberak izan ziren. Lurra jainkoen ordezkariarena zen eta nekazariak landu ahal bazuten berari esker zen, orduan, zerga “mesede” ekonomiko horren ordaina besterik ez zen. Baina honetaz gain, badago beste oinarri ideologiko bat. Erregeak, jainkoen ordezkaria izanik, hauen eginkizun bera du. Persiako Akemenidatarren

adibidean argi ikus dezakegu. Erregeak mundu osoan Ahura-Mazda jainko nagusiak Gaiztakeriaren aurka egiten duen borrokan parte hartzen du. Izan ere, erregeak munduan oreka zaindu behar du, desoreka Gaiztakeria eta Iluntasunaren laguntzailea da eta. Oreka hori erresuman gordetzen zuen barneko bakea zainduz eta kanpoko erasoetatik erresuma babestuz. Jainkoaren alde borrokatzean, honen faborea lortzen zuen eta horrekin naturaren indarrena ere. Indar hauek izango ziren uztak ziurtatuko zituztenak⁴⁹. Aipatutakoaren arabera, komunitateetan erregearekiko mendetasuna sorrarazteak ez dirudi osa zaila eta mendetasun horretan aurkitu behar dugu zerga ordaintzearen arrazoia. Errege-jauregien eta komunitateen arteko harremana honela azal dezakegu, Brianten ereduari jarraituz⁵⁰:



Horrela izanik, bi aldeen arteko harremanak hitzarmen gisa ikus ditzakegu. Hitzarmen honetan alde biek nahi zutena lortzen zuten. Komunitateak behar duen babesa kanpoko eta barruko erasoen aurrean, eta erregeak jauregiaren inguruan sortu duen egiturarako behar dituen oinarri ekonomiko eta sozialak. Komunitate bakoitzetik

⁴⁹ BRIANT, P.(1982): Contrainte militaire, dépendance rurale et exploitation des territoires en Asie Achéménide. In *Rois, tributs et paysans. Etudes sur les formations tributaires du Moyen Orient Ancienne*. Paris, (175-225), 175-225.

⁵⁰ *Op. Cit.*:184.

etekin txikia lortzen bazuen ere, milaka komunitate izanik, kopuru handia lortzen zuten. Gainera komunitate hauek eskulan- eta gudari-erreserba ere bihur zitezkeen.

Helburuak eta oinarri ideologikoak antzekoak baziren ere, zerga horiek biltzeko alde alde eta lekuz leku aldatzen ziren. Hasieran, lehen erresuma txikietan, jauregiaren ordezkari batzuk arduratuko ziren jarduera honetaz, edo bestela, komunitatekideak joango ziratekeen zergak ordaintzera; izan ere, persiarren garaian ere, honen lekuko batzuk aurkitu dira. Baina inperioak erraldoi bihurturik, zergak biltzeko era aldatu zen. Inperioen zabalera oso handia zen eta bertan egoerak oso desberdinak ziren, eboluzio maila desberdinetan. Inperioan sartzeko bideak ere oso desberdinak ziren, batzuk borondatez sartuko ziren, baina beste asko guda odoltsuen ondoren. Egoera desberdin hauen arabera, eta inperio bakoitzaren izaeraren arabera zerga-biltzeak oso desberdinak izaten ziren. Guk hemen bi eredu nagusi aztertuko ditugu: asiriarrena eta persiarrena, alegia.

1.- Asiriarren “eredua”: Asiriarren adibidea oso berezia da. Asur hiria sortu zenetik, nahiz eta gainbehera-aldi batzuk izan, jauregi-egitura sendo bat finkatu zen, ordura arte egon ziren jauregi-ereduei jarraituz. Baina K.a. XIV. mendetik aurrera⁵¹, erregetzaren



ideologiak aldaketa nabarmen bat jasan zuten. Erregeari nagusitasuna zabaltzeko “agindua” eman zitzaion.

Asirarrek, Assur bere jainko gorenaren “aginduei” jarraituz, Ekialde Hurbil osoa konkistatzeari ekin zioten, Historian, ordura arte, inoiz erabili gabeko indarkeria erabiliz.

Gudak beharrezko bihurtu ziren,

eta, ondorioz, hain ezaguna den asiriarren inperialismoa nabarmendu zen. Kanpaina

⁵¹ GARELLI, P.(1975): Les temples et le pouvoir royale en Assyrie du XIVeme au VIIIeme siècle. In *Le temple et le culte*. Leiden , 116-124.

militarrak alde batera eta bestera zabaldu ziren. Dirudienez, ekintza militar horien helbururik nagusiena zergak biltzea zen. Erregeek beren ekintzei buruzko idazkietan azpimarratzen zutenez, etekin zuzenak lortzen zituzten baina garrantzitsuagoak ziren menderatutako herrietatik, handik aurrera, lortuko zituzten zerga-ordainak. Horregatik herriren batek ordaintzen ez zuenean, zigor-ekintzak antolatzen ziren, kasu anitzetan urteetan zehar luzatzen zirenak. Askotan, ez zutela eskualdeak konkistatzeko inolako asmorik ematen du, baizik eta Asiriaren nagusitasuna onarraraztea eta honen ondorioz zergak ordainaraztea.

Helburu horiek lortzeko ez zegoen mugarik. Askotan azpimarratu dira, erregeek beraiek azpimarratzen zituztelako, egindako “krudelkeriak” menderatutako herriekin: genozidioak, herri osoak esklabo gisa saltzea, leku-aldatze orokorrak, inperio guztiko herri guztiak nahastuz (beren herria ere). Ondorioak ere oso ezagunak dira. Eskualde osoak desegituratuta gelditzen ziren, herriek lurrarekin lotzen zituzten harremanak hautsi, eta abar. Honen adibiderik nagusia galdutako Israel erresumako juduen “hamar leinuak” ditugu. Juduak izanik, erbesteratuak izan zirenetik betiko galdu ziren, beste herrien artean nahasturik. Gizartea eta ekonomia desegituratuta egonik, Asiriaren inperioan buru handi bat aurkitzen dugu, Ninibe edo Dar Saharrikhum-en, hiriburu berrian (hiri berri hau jauregia izanik). Bertan burokrazia handi bat eratu zen eta bera izango zen lortutako aberastasunez baliatu zena. Horrela inoiz baino indartsuagoa izan zen jauregia, baina oinarri sendorik gabe. Horregatik bere armada garaitua izan zenean, K.a. 612. urtean, hiri horiek guztiak suntsituak izan ziren eta haien orde basamortua geratu zen. Inguru guztia desegituratuta zegoenez gero, jauregia desagertzean, ez zegoen eskualde horiek guztiak berregituratu ahal zituenik.

2.- Persiarren “eredua”: persiarrak ere Asiako hego-mendebaldeko lurralde guztietako herriak menderatzen saiatu ziren⁵². Horretarako “egitura berri” batez baliatu

ziren, jadanik betiko jauregi-egiturak bere gainbehera hasita zuelarik.

Inperio osoa *satrapiatan* antolatu zuten eta bakoitzean *satrapa* edo agintari goren bat, erregearen ordezkoa izango zena. Bera arduratzen zen ustiapena antolatzeaz, baina ustiaketa zuzena



talde militarrek egiten zuten. *Satrapian* zehar, leku estrategikoetan, talde militarrek kokatuak izan ziren. Talde horiei lur-sailak ematen zitzaizkien leku horietan mantentzeko. Lurrak, noski, bertako nekazariak lantzen zituzten, bai menpeko gisa, bai maizter gisa. Talde militar horiek, beste aldetik, erregeari zerga egoki bat ordaindu behar zioten.

Persepolis hiriko erret jauregiko baxuerliebetan Inperioa osatzen zuten herri guztien irudiak agertzen dira, erregearen aurrean beren zergak eramatera joaten zirenean.

Sistema honen bidez, persiarrak lau helburu nagusi lortu zituzten:

- 1.- Militarrek zirenez, eskualde eta biztanleria osoa menderatuta zeukaten.
- 2.- Emandako lur horien bidez, armada handi bat mantentzea errazagoa zen, bertan lortutakoetatik bizi baitzitekeen.
- 3.- Emandako lur horien truke gudariengandik zerga bat jasotzen zuen erregeak.
- 4.- Bertako biztanleriak, horrela, bi bider ordaintzen zuen: alde batetik, bere lanaren fruitu zati bat lur onuradunen eskuetara joaten zen eta, hemendik, zati bat jauregira; beste aldetik, zuzenki erregeari ordaindu behar ziotena.

Baina persiarren inperioan bazeuden zergak biltzeko beste eredu batzuk, aldeaz alde aldatuak, bertako egoera berezietara egokituak. Anatolian, esate baterako,

⁵² BRIANT, P.. Contrainte militaire..., 176.

erabilitako sistema honek aldaketa batzuk izan zituen. Han, greziarren *polis*etan izan ezik, komunitate-egiturak bizirik eta indartsu zirauen. Orduan, komunitate-egituraz baliatu ziren etekin ekonomikoak lortzeko. Komunitateen eta jauregiaren arteko lotura zerga izan zen. Komunitateak unitate fiskal bihurtu ziren, eta beren mendetasuna ziurtatzeko talde militarrek nonahi ezarri ziren, askotan kolonia gisa⁵³.

Ekialdeko Sogdiana-Baktriana izeneko eskualdeetan desberdintasun nabarmenak zeuden. Hemen ere lurralde gune militarren inguruan eratu ziren, *petra* izenekoak. Baina *petra* horiek ez zeuden persiarren administrazioaren menpe, bertako agintarien mende baizik, *hiparka* izenekoak. Agintari horiek eskualde osoko biztanleria beren menpe zuten, baina persiarren nagusitasuna onartuz eta horren ezaugarria erregeari ordaindu behar zioten zerga zen. Hala ere, botere zentrala, arrazoiak arrazoi, ahulduta agertzen zenean, beren burujabetasuna osoa zen. Persia bera ere gune militarren inguruan eratzen zen baina erregearen administrazioari inolako zergarik ordaindu gabe.

Ondorio gisa, Briantekin bat⁵⁴ etor gaitezke, persiarren inperioaren ezaugarriak nagusienak bere jatorri militarrek zetozeela esaten duenean. Inperio osoan administrazioak oinarri militarrek zituen, baina lekuan lekuko egoerari egokitua. Horrela lurralde osoa menderatzeko eta biztanleria osoa menpeko bihurtzeko politikari ez zitzaion oztoporik agertuko.

Gainera errege persiarrek erregetzaren ideologian ere oinarritu ziren. Beraiek ziren nekazariak kanpoko eta barruko erasoetatik babestuko zituztenak. Ideologia hori onarturik, zerga ordaintzea, ikusi dugunez, erregearengandik lortutako “mesedeen” ordaina besterik ez zen. Asiriarren adibidearekin konparatuz, persiarrak onartuak izan zirela esan dezakegu. Beren inperioa hiru mila urte lehenago sortutako ereduaren gailurra izan zen, baina beren baitan aldaketa berrien aztarnak ere ikus ditzakegu: hirien

⁵³ BRIANT, P.. *Contrainte militaire*,... 197.

⁵⁴ *Op. Cit.*. 212.

artean nagusitasuna lortzen ari zirenak merkataritza-guneak zirenak ziren, ez hiriburuak edo hiri-tenpluak; inperioaren egitura ez zen oinarritzen zenbait jauregitan, izan ere, *satrapietako* jauregiek ez zuten jokatzeko antzinako jauregiek bezala, ez ziren gune ekonomikoak, administratiboak baino (nahiz eta beren garrantzi ekonomikoa handia izan); ustiaketa ez zen jauregiek zuzenean egina, lurraldean zehar sakabanatutako talde militarren bidez baizik. Aldaketa hauek oraindik hasieran bazeuden ere, greziarrekin garatuak ikusiko ditugu.

VII. Hiriak eta beren eragina.

Ekialde Hurbileko, baita gizadi osoaren bilakaerarako ere, “hiri-iraultza” garrantzi handiko gertaera izan zen. Ez da erraza azaltzea zeintzuk izan ziren hiri sorreraren arrazoiak, baina ekonomikoak eta sozialak, behin baino gehiagotan esan dugun bezala, izan zirela baieztatu dezakegu.

Neolito aroan sortutako nekazaritzak bere eskakizunak eta ondorioak izan zituen. Mesopotamiako hegoaldeko eskualdean nekazaritzak ureztatze-lanak beharrezkoak zituen, oso alde lehorra baita. Gainera, Tigris eta Eufrates ibaien ur etorria oso irregularra da eta, batzuetan, oso arriskutsua, inguru guztia urpean utziz eta kalte izugarriak sortuz. Orduan, ubidegintza beharrezko bihurtu zen. Lan hori egiteko buruzagitza bat lortzea ezinbesteko zen. Buruzagitza hau hazten ari zen jauretxeetan sortu zen. Jauretxeen garrantzia handiagotu egin zen eta berarekin aldaketa ekonomikoak eta sozialak: lan-banaketa eta lehen “klase” mailaketa. Geroztik hiriak Ekialde Hurbil osoan jauretxeen inguruan sortu ziren. Tenplu-hiriak nonahi aurkitzen ditugu, Nippur, Lagash, Ur... Sumerren; Asur, Asirian; Pesinunte, Komana, Ezani eta beste asko Anatolian; eta baita Jerusalem ere, juduen hiriburua. Hala ere, Sumerren lortu zuten eragin politiko eta ekonomikoa ez zuten beste inon lortu.

Mende batzuk pasa eta gero, jauretxeek beren nagusitasuna galdu zuten eta jauregiak agertu ziren egitura nagusi lez. Jauregi-egitura azaltzean esan genuenez, hiriak jauregien inguruan sortu ziren. Sargonek Akad izeneko hiria fundatu zuenean aldaketa nabarmena gertatu zen, jauregia eta hiria betiko geldituko ziren eta zenbait hiri, Asiriako Sargonon hiriburua, Dur Sharrikum, adibidez, bere jauregia zela esan dezakegu. Hau da, hiri-jauregi bat izen. Aipatutako honek guztiak gauza bat adierazten digu argi eta garbi: hiriek ez dute berea den benetako nortasunik, ezta bizitzarik ere. Jauregiak ematen die beren izaera, beren eragin ekonomiko eta sozialen bidez. Baina ezin dugu ideia hau hiri guztietara zabaldu behar nahiz eta gehienetarako balio izan. Bazeuden, baita ere, merkataritzaren inguruan sortutako hiriak, Ebla, Mari, Ugarit, Biblos, Sidon, Tiro eta beste asko. Hala ere, hiri feniziarrek izan ezik, beren jauregiek, kasu honetan ezagutzen dugun handietarikoak, porrot egitean, desagertu egiten ziren, jauregiekiko mendetasuna erakutsiz. Merkataritza erregeen monopolioa zela kontuan eduki behar dugu hau ulertzeko. Soilik Feniziako hiriek ahal izan zioten kanpotik zetozen erasoei aurre egin, batzuetan inperio erraldoien menpe geratu baziren ere.

Denboran zehar aldaketa batzuk ere gertatu ziren. Babilonia aldeko hiriek, zaharrenak zirenek, ere aldaketa nabarmenak pairatu zituzten. Izan ere, hiri-tenplu ereduari jarraitu bazioten ere, poliki-poliki, beste egitura eta funtzioak eskuratu zituzten. Jauretxeek zituzten aberastasunez baliaturik, lehen milurtekoan zehar merkataritzari ekin zioten eta merkataritza-gune garrantzitsu bihurtu ziren. Asiako hirien aldaketarik garrantzitsuena, ordea, greziarrek ekarri zuten. Hasieran, koloniak fundatu zituzten Anatoliako mendebaldeko kostaldean, gero kolonia horiek benetako hiri, *polis* bihurtu ziren. Horrela hiri-sare bat osatu zuten, Greziako ereduari jarraituz. Greziarrek sortutako hiriek desberdintasun nabarmenak erakusten zituzten. Seleuzidatarren kasuan

adibidez⁵⁵, hasieran “hiri militarrek” ziren, hiri ingurukoa eskualdearen mendetasuna lortzeko eta zaintzeko, baita gudariei beren lana ordaina emateko kolono gisa. Kolono hauek estatuaren eskutik lurak jasotzen zituzten. Lur hauek *jora basiliké*, hots, erregearen lur-jabegoa, osatzen zuten.

Hiriak fundatzean helburu politikoak kontuan hartuak izaten ziren, inperioko eskualdeak kanpoko erasoetatik babesteko, baina baita eskualde horren kontrola ziurtatzeko ere, barnean sor zitezkeen matxinadei aurre egiteko eta menderatzeko. Askotan, berriki sorturiko hiri horiek antzinako hiri, herrixka edo baserrian zeuden lekuetan ikusten ditugu, jatorrizko herrixkak errespetatuz eta bertako biztanleriaren egoera aldatu gabe. Hiritar bakoitzak bizitzeko leku bat eta, hiri inguruan, lantzeko soroak, *kleros* izenekoak, hartzen zituen⁵⁶. “Hiri” berri hauek ia beti militarrez osatuta zeudenez, lur kopuruak ez lirateke berdinak izango, maila militarrek kontuan hartuko ziratekeen. Gainera, ez litzateke gauza bera izango hasieratik zeudenentzat eta beranduago helduko zirenentzat emandako lur-sail kopurua⁵⁷. Antza denez, “*enfiteusi*” antzeko akura izango litzateke kolonoen eta erregearen arteko hitzarmena. Horregatik zaila zitzaien onuradunei lur hauen salerosketa. Cohenentzat⁵⁸ ezinezkoa zen. Baina denborak aurrera egin ahala, egoera hau aldatzen hasi zen eta gizaldiz gizaldi pasatzen hasi ziren eta, azkenean, jabego pribatu bihurtuko ziren, egoera horri dagozkion baldintza eta eskubideekin, salerosketarenak barne.

Hirien inguruan bi lur mota aurki ditzakegu: lehena, hiriaren inguruan zeuden lurak eta “hiritarren” artean banatuak, onuradunek zuzenki landuak edo akura eginez maizterren edo jornalarien bidez; bigarrena, urrunago zeudenak, hiri funtzionarioek kudeatuak eta jatorrizko nekazaritza-komunitateek landuak beren betiko erara.

⁵⁵ COHEN, G. M. (1978): *The Seleucids colonies. Studies in founding administration and organization*. The American Historical Review, 86:1075 December, Chicago. 48.

⁵⁶ *Ibidem*.

⁵⁷ *Op.Cit.*: 6

⁵⁸ *Op. Cit.* 69.

Lehenago erregeari ordaindu behar zioten zerga, orain hiriari ordaintzen zioten. Lehen lur mota horretan, Greziako egiturak ziren nagusi, handik ekarritako erduei jarraituz. Hala ere, fundazio ostean etorritakoei lurrak ematean, ez dago dudarik bigarren alde horretatik lortuak izango liratekeela. Homogeneotasuna zegokien hiri eta honen inguruan zeuden lurrei⁵⁹. Biek egitura berbera osatzen zuten. Bigarren eskualdea, ordea, jatorrizko egiturari jarraituz, bi hauekin konparaturik, oso heterogeneo agertzen zaigu, izan ere, hiriaren barneko egitura eta antolamendutik at gelditzen baitzen.

Koloniak, batez ere, hiri greziarrak dira eta greziarrentzat sortuak. Hiritarrak aspaldidanik greziarren artean oso ezagunak ziren “elkarteak” berezien partaide ziren. Elkartek hauek gudariei batasuna eta indarra ematen zieten eta kolonia berrien oinarriak ere baziren. Elkartek hauetan erakunde batzuk zeuden beren antolamendurako: batzar nagusia, *polemarchos*, *protokometes*, *strategos*, *archoi* izeneko buruzagiak, eta erregearen ordezkari bat, *epistates* izenekoa. Elkartek hauen helburuen artean Greziako ohiturak eta erakundeak jagozteko oso garrantzitsuak ziren. Talde itxiak eta greziar bizimoduari jarraitzeko eratuak izanik, argi dago jatorrizko biztanleria hiri-egituratik landa geratuko zela. Kolonia hauek hiri bihurtzeko bide bat egin behar zuten: jatorrizko biztanleriaren onarpenarena, *sympoliteumenoia* bihurtuta. Talde hau, noski biztanleriaren gutxiengo bat baino ez zen izango, gehiengoak bazterturik jarraitu zuen.

VIII. Desegituraketaren bidea.

Nahiz eta, orain arte, desegituraketari buruz zenbait gauza azaldu, punturik garrantzitsuenak banan-banan eta zehatz-mehatz aztertzeari ekitea ezinbestekoa da.

VIII.1. Jauretze eta jauregien sorrera eta lur bilketa.

Jauretzeak eta jauregiak ez ziren sortu hutsik edota desegituratuta zeuden eskualde batzuetan. Alderantziz baizik, eskualde horiek lehenagotik nekazaritza-

⁵⁹ BRIANT, P.(1982): Colonisation hellénistiques et populations indigènes. In *Rois, tributs et paysans. Etudes sur les formations tributaires du Moyen Orient Ancienne*. Paris, (227-262), 238.

komunitateetan eratutako lurraldeak ziren eta beren egituraketa, jauretze eta jauregiarena, alegia, lortzeko ezinbesteko zitzairen komunitate hauei lurrak kentzea. Arkeologiak erakutsi digunez, K.a. IV. eta III. milurtekoetan zehar, hau da Mesopotamian jauretzeak eta jauregiak sortu eta finkatu ziren aldiak, komunitate kopuru asko murriztu zen. Urreko III. Dinastiaren garaiko jauregiak nagusitasuna lortzeko komunitateei lurrak kentzea beharrezko politika bihurtu zuen. Lurrik gabeko komunitateek bere oinarri ekonomikoa galtzen zuten eta jauregiaren egitura sartzeko bidea soilik geratzen zitzairen, bai jauregiak zuzenki kudeatzen zituen lurren langile gisa, bai maizter gisa, bai beste edozein modutara. Horrela komunitatea unitate sozio-ekonomiko gisa betiko galdu zen.

Galtze prozesu hau, leku batzuetan, oso luzea izan zitekeen, izan ere, jauregiak oso ezegonkorak ziren eta beren eraginak ez zuten luze irauten. Gainera, Ekialde Hurbilean mendietatik eta basamortuetako ertzetatik herri ibilkari edo erdi ibilkariak ibarrez jabetzen ziren sarritan, eta, hasieran, beren egiturak finkatzen zituzten jauregiarenak suntsituz. Baina epe laburrean, honen eragina berriz nabarmentzen zen eta prozesua berriz hasten zen. Ondorioz, jauregi eta jauretzearen eragina luzea eta egonkorra zen lekuetan, Mesopotamian adibidez, komunitateek lur guztiak galdu zituzten eta egitura berri horien partaide gisa baino ez zuten irauten.

VIII.2. Jauretze eta jauregirako eskulana komunitateetatik borondatez edo halabeharrez lortzea.

Jauretzeak eta jauregiek lortutako lurrak lantzeko langileria handi bat beharrezkoa zen, eta jauregiaren eragina handiagoa zen heinean, behar hori areagotu baino ez zen egiten. Nondik lortu langileria hori? Lurrak lortzen diren aldetik, komunitateetatik, hain zuzen ere. Lagasheko jauretzearen egitura aztertzean, beharrezkoa zenean, langileak komunitateetatik lortzen zirela azaldu dugu. Zalantzarik gabe, ekintza hau ez zen adibide bakar batera mugatuko, askoz zabalagoa izan behar

zuen. Gudeak amestutako bere jauretzea eraikitzeke biztanleria guztia erabil zuen, hauetariko asko betiko jauretze edo jauregiaren menpe geratu zirelarik. Asiriarek biztanleria osoa alde batetik bestera mugitzen zituztenean bide honi jarraitu besterik ez zioten egiten. Berdin gerta zitekeen gudarako deituak izaten zirenean.

Politika honen ondorioak oso latzak ziren komunitate-egiturak bizirik irauteko. Komunitateetatik ateratakoak, askotan, ez ziren itzultzen, jauregiaren mendetasunean gelditzen ziren. Egindako kalteak izugarri larriak ziren. Senitarte-egitura ukituta gelditzen zen, izan ere, gizakumeak komunitateetatik ateratzean, premutasunaren lerroa galtzen zen edo, bestela, kopuru handia ateratzean, jarraipen demografikoa arriskuan jar zitekeen. Arazoak beste alde batetik ere etor zitezkeen. Komunitatekideak ateratzean, langile kopurua murriztu egiten zen, eta langile kopurua txikiagoa bazen ere zergarena ez zen murrizten. Komunitateetan geratzen zirenek aurre egin behar zioten, orduan, zerga ordainketari. Ekoizpen arazo hau oso larria zen. Ekoizpen teknikoak eta lanerako baliabideak oso eskasak eta maila apalekoak izanik, oso zaila zen produktibitatea handitzea, produktibitatearen gakoa eskulana izanik. Langile gutxiago egonik, produktibitatea eta ekoizpena jaisten zen. Honen ondorioz, komunitateetan hasieran jauregiarekiko zorrak sortzen ziren, baina gero zor horiek hiriekiko, edo hobeto esanda hirietako biztanleriarekiko ere, hedatu ziren. Azkenean, komunitateak gero eta ahulago geratzen ziren.

VIII.3. Zergaren eragina.

Azaldu dugu, dagoeneko, zer, nola eta zein zen zergaren oinarri ideologikoa, baina ez ditugu bere ondorioak zehaztu. Honi ekingo diogu azpiatal honetan.

Zerga, ekonomikoa edo eskulanarena, komunitateentzako zama izugarria zen, batez ere bere egitura ekonomiko aztertzen badugu. Lehenago, oso probetxagarria den

Sahlinsen ideia bat azaldu behar dugu⁶⁰: komunitateetan ekoizpena barneko beharretarako izango zen, hau da, ia ez zen soberakinik lortuko, soilik hurrengo uztarako beharrezkoa zena eta zenbait eskulangile edo talde berezi txiki bat, sortu bada, mantenerako. Zergak, ordea, soberakin ekonomikoa ez ezik gizakiarena ere eskatzen zuen. Teorikoki, jauregiak komunitatearen iraupenerako utzi behar zuten, komunitatearen iraupena ziurtatu nahi bazuen behintzat (eta, printzipioz, ez dago arrazoirik horrela ez izateko). Baina, beti lez, oso desberdinak ziren jauregiaren burokraziak egindako kalkuluak eta benetan lortzen zena. Alde batetik, nekazaritza teknika helburu ekonomikoko horiek lortzeko gauza ez zelako. Horregatik Babiloniako jauregiak beti arduratuko ziren teknika berriak zabaltzeko, ureztatzearena batez ere. Baina ureztatzea leku edota alde zehatz batzuetara, gehienbat Mesopotamiako lautada, mugatzen zen, eta hemendik at, non? Oso leku gutxitan. Beraz, oso zaila zen ekoizpena handitzea.

Beste aldetik, ekoizpena ez da bat ere erregularra, bere ezaugarri nagusia bere irregulartasuna zen. Ia Ekialde Hurbil osoan ez dago basamortu edo lehortzen ari den aldea baino, euriteak oso urriak eta irregularrak dira. Nekazaritza teknikak garapen eskasekoak zirela kontuan hartzen badugu, argi dago ekoizpen irregulartasuna izango dela ondorio nagusia. Zergaren kopurua, ordea, ez zen horregatik murrizten, eta, ordaindu beharrak zorrak sortzen zituen.

Hala ere egon daiteke bide bat ekoizpena handitzeko: langile kopurua handitzea, alegia. Langile gehiago egonez gero, lurak hobeto eta gehiago landu zitezkeen. Baina komunitate hauetan egoera ekonomikoa ezegonkorrengatik demografiaren garapena oso mugatuta zegoen. Seme-alaba asko izatea arazoa izan daiteke, batez ere alaben kasuan. Hori dela eta, komunitateek bere garapen demografikoari mugak jartzen zizkioten. Honi galera demografiko katastrofikoak, goseteak, izurriteak, gudak, eta abar

⁶⁰ Ikus. 9. orrialdean.

luze bat, gehitu behar zaizkio. Hazkunde demografikoren bat lortzen zen kasuetan, aipatutako arrazoi batengatik edo bestearengatik, hazkunde hori hutsean gera zitekeen, baita komunitatea bera ere desagertu. Egoera demografikoa, beraz, ez zen oso baikorra.

Komunitateek kanpotik inposatutako eskaerei erantzuteko, baliabide bakar bat baino ez zuten, komunitate barneko elkartasuna, “*idia*” alegia. Gehienetan jauregia egoeraz jabeturik, komunitateak unitate fiskal bihurtzen zituen. Hala ere, komunitate barneko egiturak ezin izaten zuen galarazi nekazariak zordun bihur zitezen. Zama, askotan, astunegia izaten zen eta zorrak sortzea ezinbesteko ondorioa.

Zor hauek ordaintzeko bide batzuk zeuden. Txanponik gabeko ekonomia izanik (K.a. VI. mendera arte ez dira sortuko benetako txanponak), ez zegoen txanpon mailegu eskatzerik, ordainketa produktuak erabiliz egiten zen, baina produktu hauen gabeziak ere zorra sortzen zuen. Azkenean bi baliabide baino ez dira geratuko: lurra eta gizakia. Lurren bidez ordaintzeak oinarri ekonomikoa, eta horregatik bizitzeko baliabiderik preziatuena, galtzea ekarriko luke, eta hori oso arriskutsua zen. Beraz, bigarrenaz baliatu behar! Eskulana saldu beharra zegoen. Eskulana “saltzea” jauregiarentzako lan egitea baino ez da. Oso arruntak ziren, adibidez, komunitateetako emakumeak denboraldi batean, zorraren balioa ordaindu arte, jauregiko lantegietan lan egitea. Askotan, seme-alabak ere saltzen ziren. Ez dugu pentsatu behar, hala ere, “basati berekoi” batzuen portaera denik, kasu honetan, aukera hau komunitatearen iraupena ziurta zitekeen baliabide bakarra zen. Lurra emanez gero, oinarri ekonomikoa galtzen zen; baina zorra horrela ordainduz, pertsona hauek komunitateetara itzul zitezkeen eta komunitateak, orduan, ez zukeen ezer galduko.

Benetako arazoa zorra ordainezina zenean agertzen zen. Orduan jauregi pean edo lurra galduz komunitateen hondamendia zetorren. Honetaz konturaturik, Babiloniako erregeek aldiroko barkamen dekretuak zabaltzen zituzten. Gauza bera

egiten zuten juduek: Lege Sainduaren arabera, berrogeita bederatzi urte igaro ondoren, zorrak barkatu egiten ziren eta zorreatatik galdutako ondasunak, lurak bereziki, beren antzinako jabeengana itzultzen ziren. Ez dugu ahaztu behar, beste aldetik, zerga ezaren eragina. Ezaren onuradunak talde bereziak bihurtzen ziren. Komunitateetan barneko elkartasuna apurtuta gelditzen zen, izan ere, zerga ordaindu behar zutenentzat handiagotu egiten zen eta onuradunek jauregiaren alde jokatu zuten beren komunitateen aurka.

VIII. 4. Hiriak eta hiriaren inguruan sortutako zorraren arazoa.

Hiriek ekonomia berri bat sortarazi zuten. Hirietako oinarri ekonomikoa lanbanaketa zen eta horrek ekonomiaren barruan trukearen beharra sortarazten zuen. Gune ekonomiko hauetan langile berezien auzoak sortzen ziren, bakoitza ekoizpen mota bati helduta, merkatarien auzoa, eskulangile ezberdinen auzoak, portuak, eta abar. Batzuetan hiri hauek erregeek bultzatuak izaten ziren zerga ezaren bidez. Horrela hiri hauek, Babilonia aldekoak bezalakoak, autonomoak izaten ziren, eta beraietan garapen ekonomiko garrantzitsuak gertatzen ziren, ikusi dugunez, beren inguruetakoko egitura eta baldintza ekonomikoak aldaraziz. Aldaketen artean, garrantzitsuenetariko bat hiria merkatu bihurtzea litzateke. Talde batzuk hazten eta aberasten ziren heinean gero eta produktu gehiagoren beharrea zeuden. Hirien biztanleria handitzen zen eta biztanleria horrentzat elikagaiak ekoitzi beharra zegoen. Gainera, maiz, produktu berezien eskaria sortzen zuten: ardoa, garagardoa, olioak, datilak eta abar. Eskaera hauen presioa ingurura joaten zen, nekazari-komunitateetara alegia, jauregiaren baserriek bere beharretarako, berrietarako ere, lan egiten baitzuten. Eskaera berri hauei erantzutea ez zen erraza izan komunitateentzat. Produktu hauek komunitateen ohiko ekoizpenetik kanpo zeuden, salbuespen batzuk izan ezik. Teknika berriak erabiltzen ikasi behar zuten eta eskatzen zuten ekoizpen mota berriak, askotan, barneko egituraren aurkako ager zitezkeen.

Ekoizpen horietarako lurak lantzeko modu berriak, batez ere, askoz modu intentsiboagoan, garatu behar ziren, lan askoz handiagoak eta ekonomikoki errentagarriak izateko epe luze batean ekoitziz. Lurrak, ostera, denenak ziren, eta, maiz, komunitatekideen artean banatuak. Orduan baten lana beste baten mesederako gerta zitekeen. Ekoizpen berriei ekiteko, aspaldiko ohitura horiek ahaztu beharra zegoen, eta horrek komunitate barruan tentsio handiak sortarazten zituen.

Orain arte esandakoari beste zerbait gehitu behar zaio. Lur guztiak ez ziren kalitate berekoak eta, beraz, denak ez ziren aproposak helburu ekonomiko horiek lortzeko. Askorentzat ezinezko bihurtu zen ekoizpen horiek, eskatutako mailan, lortzea. Horrela desberdintasunak sortzen ziren eta familien barnean aldaketa nabarmenak gertatuko ziren. Egoera ekonomiko berrietan, premuaren familia txiro bihur zitekeen bitartean, familiaren bigarren edo hirugarren mailako adarren bateko kideak aberats zitezkeen, familia barneko harremanak zeharo aldatuta geratzen zirelarik. Premutasunak bere nagusitasuna eta garrantzia galduko zuen egoera ekonomiko berriaren ondorioz eta, berarekin, egitura soziala eta politikoa zeharo aldatuta geratuko zen.

Ekoizpen mota berri hauek, gainera, beste behar batzuk ere bazituzten. Lehena, eta agian garrantzitsuena, inbertsioen beharra zen. Ekoizpen berezi hauek hasieran inbertsio handiak eskatzen zituzten, bai landaretzan, zein lehen uztak lortu arte, behar diren elikagaiak lortzeko (mahatsondoek eta olibondoek urte batzuk behar dituzte beren lehen fruituak emateko). Hori lortzeko mailegua beharrezkoa zen. Asiriako adibide bat aztertuz⁶¹, mailegu bakoitzeko berma bat eskatzen zela dakigu. Berma hori pertsona, lurra edo beste edozer gauza izan zitekeen. Mailegu emaileak epea bukatu arte ez zuen bermearen gainean inolako eraginik, baina epea igaro ondoren, zorra kitatu ezik, bere eskuetara pasatzen zen, pertsona zein ondasuna, bere jabe berria bihurturik. Pertsona

⁶¹ DIAKONOFF, I. M.: Agrarian conditions..., 227.

bada, ez dugu esklaboekin parekatu behar, bere egoera bestelakoa baitzen, menpeko edo morroi, komunitatetik kanpo.

Ohitura hau K.a. VI. mendetik aurrera areagotu baino ez da egingo, maileguak asmatu berriak ziren txanponetan ematen hasi zirenean. Orduan, maileguak ugaritu egin ziren, eta horregatik zordunentzat askoz arriskutsuago bihurtu ziren. Txanponaz, ekonomiak beste itxura bat hartzen zuen. Maileguak, eta baita zergak ere, txanponetan ordaindu behar ziren, eta txanpon horiek lortzeko merkataritza-sisteman sartu behar zen, ohiko autokontsumorako ekonomia baztertuz. Komunitateentzat ekonomia berri honek aldaketa garrantzitsuak ekarri zituen. Orain arte, merkataritza-sistematik at gelditu arren, hemendik aurrera ez zuen beste erremediorik izango eta bere jarduera ekonomikoa merkatu zabal batera zabaldu behar izango zuten. Ohiko trukean oinarritutako sistema alboraturik, “merkatu-ekonomia” berri batera zabaldu beharko zuten beren jarduera ekonomikoa. Zentzu honetan interesgarria da duela gutxi Vargyas-ek argitaratutako artikulua⁶². Honen arabera, K.a. III. milurtekoetik aurrera Mesopotamiako lur guztien portzentaje handi bat jauretxe edota jauregien jabegoak baziren ere, eta ondorioz, bertako biztanleriaren parte handi batek bizitzeko beharrezko elikadura erakunde hautetatik jasotzea, ezin da pentsatu besterik gabe hori zela bizimodua ateratzeko bide bakarra⁶³. Bere ustez, erakunde politiko eta erlijiosoetatik eginiko banaketek ezin zuten ziurtatu biztanleriaren mantenua. Horregatik pentsatu behar dugu herriak bazuela bizitzeko beste bideren bat, nekazaritzan oinarrituta. Horrela nekazariak beren lurrak edo erakunde hauen lurrak landu egingo zituzten, mota desberdinetako itunak egin ondoren, eta lortutako produktuak merkatuan salduko lukete, etekin ekonomikoak lortuz. Gauza bera egingo lukete jauretxeek K.a. VI. mendean eta

⁶² VARGYAS, P. (2004): La monétisation de l'économie rurale en Babylonie et en Égypte pendant le Ier millénaire av. J.C. in Bernardett Menu editorea *La dépendance rurale dans l'Antiquité égyptienne et proche orientale*. Institut Française d'Archéologie orientale. Le Caire, 109-120.

⁶³ *Op. Cit.* . 111.

hurrengo mendeetan. Hori egia balitz, bere ustez, merkatu-ekonomia mota baten aurrean egongo ginateke. Baina horrek monetaren erabilera eskatuko luke eta, jauretxeek sortutako monetarik ez badago ere, hipotesi bezala, planteatu daitezke bazeudela beste baliabide batzuk monetaren funtzioa beteko luketenak eta horren jatorria K.a. III. milurtekoaren amaieratik aurrera bilatuko beharko litzateke⁶⁴

Eraginak, gainera, beste alde batzuetatik ere bazetozen. Ekoizpen berezi hauek lantzeko sistema berriak eskatzen zituzten. Gure informazio iturrietan maiz agertzen dira lotua ekoizpen berezi hauek eta maiztergoa eta esklabotza ere. Behar zen lan hori egiteko, betiko lan antolamenduek ez zuten balio, zerbait berri behar zen. Esklabotza eta morrontza izan ziren horietarako hobekien moldatzen zirenak. Komunitate mailan bere haustura bat gertatu zen, esklabo eta morroien jabe eta betiko ohiturari lotuta jarraituko zutenen artean, hain zuzen ere.

Hirietan sortutako ekonomiaren eragina beste ildotik ere bazihoan. Hiria iren izaera ekonomikoa lan-banaketa izanik, eta lan-banaketa horrek trukea eta merkataritza eskaturik, hirian dena izan zitekeen salgai, baita lurra ere. Puntu honetaraino helduz, arazo teoriko bati erantzuna eman behar diogu: lurraren salmenta jabetasunaren arazoarekin lotuta dago. Puntu honetan ikertzaileek iritzi desberdinak azaltzen dituzte. Teorikoki, ez dago jabego pribaturik, lurra komunitatearenak ziren edo, bestela, instituzioenak, jauregia edo jauretzea. Baina bilakaera sozio-ekonomikoaren ondorioz, egoera hau aldatu egin zen. Eta lehenago erakundeak zirenak jabego pribatu bihurtu ziren. Komunitateen barruan, bilakaera hori askoz zailagoa zen, bere egiturek indartsu zirauten bitartean, behintzat. Komunitateek eta komunitatekideek lurrarekin harreman estuak zituzten, eta egoera aldatzeak harreman horien aurka jardutea zen, eta hori ez zen bat ere erraza. Izan ere, lurra saltzea, adibidez, bere oinarri ekonomikoari eraso egitea

⁶⁴ VARGYAS, P.: op.cit, 117.

zen, baita kanpotarrak, atzerritarrak, bere barneko egituretan sartzea ere. Beraz, lur-salmenta oso begi txarrez ikusia izango zen eta hori oztopo galanta zen lurrak saldu edo erosi nahi zituztenentzat. Baina arazoa, oraindik, korapilatsuagoa zen. Lurra denena izanik, ez zegoen lur muga zehatzik, komunitate barruan beharrezkoa ez zelako. Baina, lurrak saltzeko sailen mugak zehaztu behar ziren. Nola, ordea, egin zitekeen horrelakorik? Lur-salmentak ezinezkoa dirudi egitura osoa hautsi gabe. Hori izango zen, mendeetan eta alde ezberdinetan zehar ikusiko duguna, baina ez beti komunitate kanpotik halabeharrez inposaturik, askotan barneko egiturak eskaintzen zituen aukerak edo bideak aprobetxatuz.

Lur-salmentei buruzko informazioa hasieran oso ugaria ez bada ere, batez ere, Sumerren oso goiztiarra da. Lur-salmentak burutzeko bi bide ezagutzen ditugula esan dezakegu, bata Sumerren egina, bestea Asirian. Sumerren kasua aztertzean⁶⁵, senitarte patriarkal zabalaren jabegoan sal daitekeen lurra dagoela ikus dezakegu. Pertsonai garrantzitsu batzuk lur kopuru handien “jabe” gisa agertzen zaizkigu, batez ere komunitate administrazioaren funtzionarioak, erregearen senideak eta, batzuetan, erregea bera ere. Agerpen honek zenbait puntu argitzen dizkigu. Alde batetik, une honetan, K.a. III. milurtekoan, zenbait lekutan komunitateen baitan zegoen botere eta aberastasun pilaketa bat, onuradunak familia nagusiak izanik. Ez ditugu ahaztu behar talde hauek jauretxeekin zituzten harremanak. Izan ere, familia hauek jauretxeen aldetik lortutako lurrekin “nahastuko” zituzten eta salgai bihurtuko ziren besteekin batera. Beste aldetik, errege eta jauregiaren eragina oso nabarmena izan zen komunitate barneko arazoetan eta bizitzan. Baina fenomeno hau jauregia indartu eta gertatu zela, eta ez aurretik, pentsatu behar dugu. Hala ere, familia nagusienetakoek ezin betiko araei eta ohiturei aurka egin, eta bere jokaera ez zen benetako jabe batena izango. Senide

⁶⁵ DIAKONOFF, I. M.: *The Rise of...*, 177.

hauek⁶⁶ ez zuten beren kabuz jokatzeko, baizik eta familia osoaren ordezkoko gisa⁶⁷. Salmentetan familiako beste partaideek lekuko gisa jokatu behar zuten, eta, dirudienek, komunitatearen Batzar Nagusiaren onospena beharrezkoa zen. Hori ez zen arazoa; izan ere, familiaburuak bat etorriz gero, bakoitzaren “aita nagusiak” bere familian bere nagusitasuna inposatzeak ez dirudi arazo zailik.

Asiriako kasua aztertzean⁶⁸, ez dago funtsezko desberdintasunik, salmentak komunitatearen adostasuna eskatzen zuen. Zehaztasun handiago emanez, argi dago “eroslea” ez zela senide bihurtzen, hots, komunitatekide. Zehazki jokatu gero, ez da, ezta bentako salmenta bat ere, ez baitira saldutakoaren mugak zehazten, “*saltzen dena ez dirudi lurra, lurraren erabilpena eta fruituak baizik, jabetasuna komunitateak beretzat gordetzen du*”⁶⁹. Ikuspegi honen osagarria izan daitekeen aspektu bat Liveranik ematen digu⁷⁰. Salmenta ospakizun berezia da. Saltzaileak, beti bat baino gehiago, gehienetan senideak, komunitate ordezkoren gisa aritzen ziren. Erosleak lurraren “salneurriaz” gain, saltzaileei opari bitxi bat eman behar zien, eta baita hauekin batera salmentan agertzen ziren senide eta komunitatekideei ere, izan ere, denei zegokien salmenta eta denak “poztu” beharra zegoen. Baina, ikuspegi moral batetik, esan dugunez, lur-salmenta hauek ez ziren begi onez ikusten⁷¹, eta horregatik askotan erregeak, saltzeko bideratzen zituzten baldintzak ezabatu nahiak, zor barkamen dekretuak zabaltzen zituen, horrela lurak beren lehenagoko jabeen eskuetara itzul zitezkeen. Zenbait ikertzaileentzat, ez ditugu benetako lur-salmentatzat jo behar, uzta salmentatzat hartu beharko genituzke. Dena den, horrela bada ere, salmentarako bidea zabalik geratzen zen.

⁶⁶ DIAKONOFF, I. M.: The Rise of... 177.

⁶⁷ *Ibidem*.

⁶⁸ DIAKONOFF, I. M.: Agrarian conditions..., 207.

⁶⁹ *Ibidem*.

⁷⁰ LIVERANI, M.: Il modo de..., 39.

⁷¹ *Ibidem*.

Lur-salmentak komunitatean elementu arrotzak sar zitzakeen, egitura mailan, baita komunitateko biztanleen artean ere. Egitura mailan lur-salmentak jabego pribatuaren bidea errazten zuen. Lurra saltzeak, gainera, jabego kolektiboaren kontzeptuaren amaiera dakar. Hasieran, salmenta ekintza kolektibotzat jotzen bazen, geroago ekintza pribatu bihurtuko zen, nahiz eta horretarako ohiko egitura apurto behar. Saltzaileak, aurki zitzakeen oztopoak gainditzeko egitura nagusiaren laguntza, jauregiarena hain zuzen ere, izango zuen, lur horien erosleak jauregiaren partaideak edo berriki aberastutako hiritarrak baitziren. Beraz, kanpotik izango ziren bultzatuak lur-salmentak.

Aipatutakoaren ondorioz, komunitatearen baitan lehen desorekak agertu ziren. Salmentarako joera oso garrantzitsua bazen, lehenago edo beranduago lurrik gabeko nekazariak agertuko ziren, lurra saldu edo galdu zutenak, hain zuzen ere. Hauek izango ziren maileguak eskatu eta zorretan betiko geratuko zirenak, baita, gero, jauregiarentzako morroi edo jornalari gisa arituko zirenak ere, zenbait kasutan lur-jabedunentzat eskulan merkea bihurturik.

Komunitatearen oinarri soziala, familien arteko elkartasuna galdurik, bide berriari jarraitu beharko zioten, ahal zuena lur-jabe bilakatuko zen, beste ekonomia eredu bat sortuz. Baina gehiengoa, lur guztiak galdu ondoren, bere arbasoen lurrak izan zirenak landuz, jauregi-egituraren handikien morroi edo maizter bihurtuko ziren. Hauetarikoak izan daitezke Hamurabiren Legedian agertzen diren “*muskenu*” izenekoak. Erregeak ondo babestu nahi bazituen ere, beste biztanleekin konparaturik, bigarren mailako talde bat osatzen zuten.

K.a. III. milurtekoetik aurrera izandako bilakaerak oinarri-oinarrian aldatu izan zituen nekazarien egoera, batez ere, bilakaera hori muturreraino eraman zen eskualdean, Mesopotamiako hegoaldean, alegia. Horren bilakaera luzeak oso egoera konplexua eta

nahastua sortu zuen, oraindik ikertzaileek ondo ulertzen ez dutena. Horren adibide Francis Joannèsen lana dugu.⁷² Ikertzaile honen arabera, K.a. I. milurtekoaren bigarren erdialdean, Babilonia aldeko nekazarien morrontza kategoria desberdinetako nekazariei zegokien. Alde batetik bi haustura sozio-juridiko desberdinak agertzen ziren: lehena askeak, *mâr* izenekoak, eta ez-askeak, *ardu* izenekoak; bestetik, izaera ekonomikoa duen haustura, bere buruaren mantenurako beharrezko baliabideen jabe zirenak, eta baliabiderik gabekoak edota, eduki arren, behar zen beste ez zeukatenak⁷³. Dena den, eta Joannèsek berak adierazten duenez, kasu batzuetan, salbuespenak beti ere, esklabo mota batzuk beren mantenurako behar adina baliabideren jabe ziren eta beste batenak erabili behar dituzten horretarako, honek sortzen duen horrekiko mendetasunarekin. Horrela, garai hauetako morrontza bi haustura, juridikoa bata, ekonomikoa bestea, aintzat hartuta ulertu behar da. Beraz morrontzaz hitz egitean, berdin hartu behar ditugu kontuan morrontza juridikoan zein morrontza ekonomikoaren menpe zeudenak. Erakunde desberdinen testuetan egoera nahasi honek beren menpe edo beraientzat lan egiten zutenak izendatzean, batzuetan egoera aipatu ordeztatu da aipatzen da⁷⁴. Joannèsek, adibide gisa, “nekazarien” (*ikkarû*) adibidea jartzen du. Hauek ez ziren nekazari guztiak baizik eta tenpluetako esklaboen artean (oro har, *sirkû* deituak) nekazaritzan aritzen zirenak. Baina *sirkû* hauek ez ziren beste esklaboak bezalakoak. Jainko edo jainkosa baten jabego dira, ezin dira askatu eta beren jatorria erregearen edota beste edozeinen emate ekintza da. Erret lurretan zeuden eta beren herrietatik erbesteratutakoak egoera berean egongo ziren⁷⁵. Joannèsek nekazari menderatuak izendatzeko hamar izen aipatzen ditu:

⁷² JOANNÈS, F. (2004): La dépendance rurale en Babylonie VIIe-IV-e siècles av. J.C. in Bernardette Menu editorea *La dépendance rurale dans l'Antiquité égyptienne et proche-orientale*. Institut Française d'Archéologie orientale. Le Caire, 239-251

⁷³ Op. cit. : 239.

⁷⁴ Op.cit.: 240.

⁷⁵ *Ibidem*.

- *Agrû*= jornalaria (morroi ala askea).
- *Arad sarri*= erret esklaboak.
- *Erresu*= nekazaria, jauretxearen partekaria.
- *Gardû*=erret langilea.
- *Ikkaru*= nekazaria, tenpluen nekazariak.
- *Nisu biti*=jauretzeko morroi edota neskameak.
- *Sâbû*= gudaria edota diziplina militarren menpeko langilea.
- *Sirku*=jauretxeen morroiak.
- *Susânu*= erret morroia.
- *Ummânu*= jauretxearen hiriko artisaua edota langile askea.
- *Urasû*=erret jopua, hots, erregearen lanak egiteko deitua izan zitekeena⁷⁶.

Egoera anitz honen ondorioz, pertsona bat, unean uneko jardueraren arabera, izen batez ala bestez izendatuta ager zitekeen jauretxe edota jauregietako testuetan. Morrontza bi multzotan agertzen zaigu: pribatua eta erakundeetako eta azken hau beste bi azpimultzotan: jauregiarekikoa eta jauretxearekikoa.

VII.4.1. Morrontza pribatua.

Morrontza honen barruan aurki ditzakegunak, partzuer gisa, hirietako lurjabe pribatuekin kontratu sinatu duten pertsonak dira⁷⁷. Dena den, artxiboen arabera, lurrak lantzen zituztenak, esklaboak (*ardu* edo *qallu* izenekoak) beren familiekin izaten ziren lurrak lantzen zituztenak. Batzuetan, ordea, eta egoera nahasteko, lurjabe batzuek beste batzuei lurrak alokatu egiten zizkieten aipatutako esklaboek ere landu zitzaten⁷⁸.

Borsippako artxiboen arabera hiru ustiapen mota aurki daitezke:

a.- beren lurrak lantzen zituzten jabeenak.

b.- lurrak lantzeko partzuerrak kontratatzen zituztenak, eta

⁷⁶ *Op. Cit.*: 241.

⁷⁷ *Op. Cit.*: 242.

⁷⁸ *Ibidem*.

c.- beren lurak partzuerren bitartez lantzen zituztenak, baina beste jabe batzuekin elkartuz, beren lurren inguruko besteak ere lantzen zituztenak.

Egoera hauek azterturik, Joannèsek pentsatzen du hemen askatasunik gabeko morrontza ikusi ordez, harreman ekonomiko mota desberdinek sortutako loturak antzeman daitezkeela⁷⁹. Hauen izaera ulertzeko kontuan hartu beharko genituzke lurjabe aberatsek beraien partzuerrei baldintza batzuk jarriko zizkietela mailegu batzuen edota uztaeren merkaturatzea erabiliz, baina nekazari hauen egoera juridikoa aldatu gabe.

VII.4.2. Erakundeetako morrontza.

Morrontza mota honi dagokionez, oro har, *sâbû* deitzen zaio, eskulana zein armada osatzeko. Baina, esan dugunez, morrontza hau bi azpimultzotan bereiz daiteke, jauregiarekikoa eta jauretxearekikoa, alegia.

Jauregiarekiko morrontza: Joannèsen arabera⁸⁰, bi mota zeuden: *susânu* eta *gardû*, hain zuzen ere. Erregeak bi pertsona hauek erabiltzen zituen, bai egin beharreko lanak egiteko, eskulan gisa, zein beraiengandik zergak jasotzeko. Bi izen bazituzten ez zen egoera juridiko desberdinetan zeudelako, baizik eta beren jarduerengatik. *Gardû* izenekoak jauregiari edo honen menpe zegoen beste erakunderen bati zeuden zuzenki lotuta. *Susânu* izenekoak, ordea, askatasun handiagokoak ziren beren jardueretan, erret lurak landuz. Denborarekin, desberdintasun hori ia erabat desagertu zen.

Jauretxearekiko morrontza: Jauretxeei dagokienez, morrontzaren eredu nagusia *sirkû* izenekoak izango dira. Hauek bi talde desberdinetan agertzen ziren: alde batetik, hirietako jauretxeetan bertan ari zirenak, eta bestetik jauretxeei lotuta zeuden lurak lantzen zituzten *ikkarû* izeneko nekazariak. Azken hauek izango dira talderik nagusiena osatuko dutenak. Hala ere, artxiboetan beste nekazari mota batzuk agertzen dira: *errêsu* izenekoak. Hauek, legearen arabera, askeak ziren, baina jauretxearen lurak, partzuer

⁷⁹ *Op. Cit.*: 243.

⁸⁰ *Op. Cit.*: 245.

gisa, lantzen zituzten. Aurrekoen egoerarekin konparatuta, aldea nabarmena da. Haiek behartuta zeuden uzta osoa jauretxeetako biltegietara eramatera eta jauretxeak behartuta zeuden beharrezko mantenua ematera; azken hauek, ordea, zati bat. Ezagutzen ditugun artxiiboak kontuan harturik, partzuer hauek jauretxeen lurren bi herenak lantzen zituzten. Hauek ez zuten jauretxeen aldetik inolako mantenurik jasotzen, baina, dirudienez, haien lurrak lantzerak behartuta zeuden, lurrik gabeko nekazariak izanik (edo egoerarik onenean jabego txikien jabe, baina ureztatzeko urik gabekoak). Hirietako morroiak, batez ere, artisauak ziren eta jauretxearekiko beren mendetasuna erabatekoa zen.

Joannèsek planteatzen duenez, morrontzan giza talde handiak edukitzea oso garesti ateratzen zitzairen nagusiei, publikoei zein pribatuei, eman beharreko hornikuntza (janaria eta edaria, batez ere, *kurummâtu* izenekoak) oso handia baitzen eta nekazaritzaren zikloen arabera, urte sasoi luzeetan ez zuten inolako eginkizunik, herri lanak ez baziren⁸¹. Hori dela eta, askoz errentagarriagoa izango zen pertsona hauek aske mantentzea, hots, *erresu* izenekoan egoera, baina jauretxe edo jauregien lurretan edo bestelako lanetan beharrezkoa zenean. Nekazari hauek egoera hau onartuko zuten erakundeek ematen zieten babesaren truke, eta batez ere, beraien bizitza maila oso-oso apala zelako. Izan ere, gosearen mamua oso hurbil zegoen eta lan horiek egitearen truke bizirauteko behar zutena lortzen zuten. Horrela aritzea guztientzat onuragarria izanik, egoera berriei ateak zabaltzen hasi zitzaizkien. Babilonia aldeko testu idatzietan gero eta gehiago agertu ziren, Joannesek⁸² “enpresari” (*entrepreneurs*) deitutakoak, jauretxeen kudeaketan gero eta partaidetza handiagoa dute menpekoek betetzen zuten lana eginez. Hauentzat jauretxeentzat arituz, bizitzeko behar zutena soilik lortu ordez, etekin ekonomikoak lortzeko bide bihurtu zen. Horrela erakunde handien (jauretxeak eta jauregiak) lurrak bi multzotan bereizten ziren: alde batetik, lur batzuk erakunde hauen

⁸¹ *Op. Cit.* 247.

⁸² *Op. Cit.* 249.

menpekoek zuzenean lantzen zituztenak; eta bestetik, askeak ziren pertsoneri utzitakoak. Pertsona hauek, beren aldetik, bi motatakoak izan zitezkeen, nekazari arruntak, maizter gisa, lur hauek lantzean bere biziraupena ziurtatzen zutenak; eta, hirietako “enpresariak” beraien menpekoen bidez lur hauek lantzen zituztenak. Egitura honetan, benetako menpekoak jauretxe eta jauregiekiko mendetasun zuzena zeukaten nekazariak ditugu.

Hau guztia kontuan harturik, Joannèsk ondorio hauek planteatzen ditu⁸³:

- Izen asko erabiltzen ziren, baina mendetasun egoerak ez ziren hainbeste. Izan ere, langile askeak edo esklaboak erabiltzen zituzten jабedunak kanpo utzita, jauretxeek zein jauregiek bi langile mota erabiltzen zituzten, lurretan finkatutako menpekoak, lortutako ekoizpenaren parte batez elikatzen zirenak. Jauretxeen kasuan bi multzo bereiz daitezke, nekazaritza-lanak egiten zituztenak eta hirietan jauretxearentzat artisau-lanak egiten zituztenak. Horien artean mendetasun hiru maila desberdin agertzen ziren:
 - Erabateko morrontza pairatu behar zutenak (morroiak-*gardû* eta nekazariak-*ikkarû*).
 - Erdi morrontzan zeudenak (morroiak-*susânu*);
 - Eta ia askeak zirenak (laborariak-*err^sû*).
- Hala ere, talde hauen arteko desberdintasunak ez ziren erabatekoak, mugak ez ziren erabat itxiak. Egoera hauen barne bilakaera baten ondorioz, badirudi epe baten amaieran, denak hasi zirela modu berean funtzionatzen (*susânu/gardû*). Baina *ikkarû* mota batzuek lortu zutela janari batzuen truke eginiko lana zenbait lur-sail batzuen posesioa izatea, azken hauek beren bizimoduaren oinarria izanik.

⁸³ *Op. Cit.* 250.

- Jauretxe zein jauregien kudeaketa lanetan gero eta ugariagoa zen “enpresari pribatu” batzuk, bai zergen bilketan bai lur batzuen kudeaketa zuzenean. Bilakaera hau ulertzeko bi puntu eduki behar ditugu kontuan:
 - Erakunde hauek saiatu egiten ziren morrontzapean zituzten pertsonen ardura, elikadura eta arropa ematearen, beren ardurapetik kanpo.
 - Erakunde hauen helburua politikoa eta erlijiosoa zen, ez ekonomikoa. Horregatik, batzuetan, zailtasunak izaten zituzten lortutako ekoizpenak merkaturatzeko. Horregatik ez da harritzekoa horretaz prestatuago zeuden beste pertsona batzuen lankidetzaz bilatzea.

VIII. 5. Hiri greziarren eragina.

Hiri greziar berrietan azaldutako joerak areagotu besterik ez ziren egin. Greziarrek bere nagusitasuna inposatzeaz gain, ustiapen sistematiko bati ekin zioten, pertsona pribatuek eginga zein hiriek beren kontrolpean zeukaten lur eremuetan. Greziarren nahiak betetzeko, Isokratesen esanetan: “*Asiarrak gure “hilotak” bihurtu behar ditugu*”⁸⁴, komunitateak lurrik gabe geldituko ziren eta komunitatekideak maizter eta nekazaritza-jornalari bihurtu zituzten; azkenik, zorren bidez, esklabo bilakatzeraino. Hemendik aurrera, lurra galdurik, greziarrenak landuko zituzten.

Hiriek, beren aldetik, presioa areagotu egin zuten. Hiri greziarrak eskakizun handiak eta ugari zituen. Greziako hirien ereduari jarraitu nahian, eraikuntza programa zabalari ekin zioten: antzokiak, jauretxeak, “*gymnasium*”-ak, eta abar nonahi agertuko ziren, zein baino handiago eta zein baino aberatsago. Baina eraikuntza hauek guztiek oso gastu handiak eskatzen zituzten eta horretarako dirua behar zen.

Gainera, guda aroa zen. Hiriek beren burua defendatzeko edo erregeari laguntzeko izugarritzko gastu militar handiei aurre egin behar izaten zieten. Argi

⁸⁴ BRIANT, P.: *Contrainte militaire...*, 186.

dagoenez, hiri batentzako oso egoera larria sor zitekeen dirurik gabe agertuz gero. Hiritarrentzat zerga sistema finkorik ez zegoenez, nekazarien gainean zergak ezartzea eta handitzea ondorio naturaltzat jo beharko dugu, beraz. Zama hauek komunitateentzat jasanezinak bihurtu ziren eta hemen, berriz, zorra arazoaren aurrean gaude berriz ere. Irtenbidea zordunak saltzea izaten zen. Ondorioz, Mediterraneo inguruko esklabo merkatuetan eta azoketan Ekialde Hurbileko nekazariak askotan ikusten ziren. Egoera honetatik ihes egiteko, askok komunitateetatik ihes egiten zuten, geratzen zirenentzat zama oraindik handiagotuz.

Alexander Handiaren heriotzaren ondoren, bere jeneralek bere inperioa banatu zuten, estatu helenistakoak sortuz.

Erromatarren

agintepean, gera zitezkeen komunitateak, beren oinarri ekonomikoak eta sozialak



deuseztaturik, ez zuketzen bizitarik eta hiltzori luze batean murgilduta leudeke.

VIII. 6. Jauregiaren jokaera eta bere ondorioak.

Komunitateek, zergaz gain, lur emaitzak ziren jauregitik jasan behar zituzten erasorik garrantzitsuenak. Hasiera hasieratik, bai jauretxeek baita jauregiek ere, beren partaide eta laguntzaileei lurra emateko joera erakutsi zuten. Lur emate hauek funtzio bati lotuta egoten ziren eta ez ziren betiko, funtzioa betetzen zen bitartean baizik, ikusi ahal izango dugunez. Baina jauregiek beren eragina zabaltzen zuten heinean burokrazia indartsu baten beharra zuten, funtzionario hauek lur horien “jabe” bihurtuko zituzten. Joera hau asiarrekin eta hititekin oso garatua agertzen zen. Hititen artean egoera honi feudalismoaren kutsua eman diote ikertzaile askok, Europako Erdi Aroko Feudalismoarekin parekatzeraino, gero beste egoera batzuekin, asiriarraren adibidez,

azterketa bera eginez. Horregatik askok Ekialde Hurbileko feudalismoaz hitz egiten dute.

Baina, nolako feudalismo mota zen hau? Azaleko azterketa egiten badugu, nekazari menderatuak, erregeek emandako lurrak, “jaurgoak”, talde militarrek... aurkitzen ditugu. Benetako feudalismoa, beraz! Hala ere, benetakoa ote da? Jaun horiek lurrak erregearengandik lortzen zituzten, erregeak, ordea, ez zituen nekazarien gaineko bere eskubide juridikoak galtzen, ez zegoen, beraz, benetako jaurerriak eratzeko inolako aukerarik. Europako erregeak eta Ekialde Hurbilekoak konparatuz gero, desberdintasun nabarmenak ikusiko ditugu. Europakoak, handikien artean, “*primus inter pares*” ziren, ez zuten, beraz, beren pertsona besteengandik benetan bereizten zuten ezer (denek aitortu, baino inork errespetatzen ez zuten nagusitasun “sinbolikoa” izan ezik). Ekialdekoak, ostera, ez zuen inoiz galduko bere izaera erlijiosoa eta bere nagusitasuna gutxitan jarri zen kolokan, oso egoera berezietan edo nortasunik gabeko pertsona ez bazen, baina inoiz ez erregetza bera, erakunde gisa. Horregatik, eta arazo honetan gehiago sakondu gabe, ez dirudi benetako egitura feudalaz hitz egin daitekeenik. Nekazariak menderatuak izango ziren, jakina, beren soberakinak galduko zituzten talde edo pertsona batzuen mesederako, baina ezin ditugu konparatu Europako nekazariekin. Egoerak oso desberdinak ziren.

Erregeen ekintzen ondorioak zehazki ezagutzen ez baditugu ere, greziarren nagusitasunaren garaiko iturriek zehaztasun batzuk ematen dizkigute. Ditugun lekukoak oso urriak dira: Laodikén Aristodizides eta Mnesimachosi eginiko lur emateak batez ere. Une honetan, nekazari gehienek “*laoi basilikoi*” izena zuten, hots, “erregearen nekazariak”. Nekazari hauek, oraindik komunitate-egituraren barruan bizi zirenak, herrixkei lotuta zeuden, komunitatea unitate gisa ulerturik. Horregatik Briantek “*adscripti vici*”, “herrixkari lotuak”, eta ez, “*adscripti glebae*”, “lurrari lotuak” (Erdi

Aroko Europako nekazariekin desberdintasun garrantzitsu bat, beste aldetik) izena ematen die⁸⁵. Nekazari hauek ez zuten inoiz galduko beren bizilekutik alde egiteko “eskubidea”, eta erregeak lur emate hori egitean eskubide hori ongi babestu zuen⁸⁶. Ikertzaileentzat puntu honetan arazoa sortzen da eta bi ikuspuntu nagusi daude: bata Briantek berak defendatzen duena⁸⁷ eta bestea Kreisingek defendatutakoa⁸⁸. Komunitatearen egoera une honetan (K.a. IV. mendetik I. mendera arte) hobeto ulertzeko eztabaidan sakontzea beharrezkoa deritzot.

Brianten ustez, nekazariak, esan dugunez, herrixkari lotuta zeuden eta ez lurrari. Ondorioak oso garrantzitsuak ziren. Erregeak ematen zuena ez zen nekazari kopuru bat lurrarekin, baizik eta nekazarien lanaren fruitua⁸⁹. Bere aburuz, lur emateak egitean nekazariak izena aldatzen bazuten ere (“*laoi basilikoï*” izatetik “*laoi*” soilik izatera pasatzen ziren), beren egoera ez zen benetan aldatzen. Lehen bezala erregearen menpean, beren betiko egiturarekin jarraitzen zuten. Erregearen epaileak arduratzen ziren beren barneko arazoez, auzi immunitatea onuradunarentzako zeharo deuseztaturik. Emandakoa erregeak, arazorik gabe, berreskura zezakeen, eta onuradunak ez zuen nekazarietako inolako eskubide berezirik. Onuradun honek, lehenago erregeak eskatzen zuena besterik ezin du eskatu, ezta handitu ere.

Kreisingen ustez⁹⁰, ordea, erregearen emate mota batzuk bereizi beharko genituzke. Batzuk edozein unetan berreskura zitzakeen, baina bazeuden beste batzuk benetako jabegoa suposatzen zutenak. Bere aburuz, hauexek dira garrantzitsuenak. Kasu hauetan lurrak ematean nekazariak ere ematen ziren. Hortxe legoek “*laoi basilikoï*” izatetik “*laoi*” huts izatera pasatzeko benetako arrazoia eta bi egoera hauen arteko

⁸⁵ BRIANT, P.. *Remarques sur...*, 102.

⁸⁶ *Ibidem*.

⁸⁷ *Ibidem*

⁸⁸ KREISSING, H. (1977): Propriété foncière et formes de dépendance dans l'hellénisme oriental. In *Terre et paysans dépendants dans les sociétés antiques*. Paris, 197-215.

⁸⁹ BRIANT, P.: *Remarques sur...*, 105.

⁹⁰ KREISSING, H.: Propriété foncière..., 208.

ezberdintasuna. Hauek jabego gisa menpetasun osoan geratuko ziratekeen, nahiz eta oraindik esklaboekin ezin ziren parekatu⁹¹.

Oso zaila da iritzi bataren edo bestearen alde egitea, askotan usteak baino ez daudenean. Dena dela, badirudi oso zaila dela bigarrena onartzea. Orain arte aipatutakoaren arabera milaka urteetan zehar luzatu zen tradizioaren aurka zihoan eta. Greziarrek Asia menderatu zutenean, ez zituzten aldaketa nabarmenak sartu, ez zuten tradizioarekin inolako hausturarik egin, jarraipen bat baizik, nahiz eta beren eraginez, egoera nahiko aldatu.

Hala ere, onuradunek ahalegin guztiak egingo zituzten lur eta nekazarien jabeak izateko, erret dekretuetan agertzen ziren anbiguotasunak eta erregetzaren ahulaldiak aprobetxatuz. Horretarako beste puntu bat ere alde zuten. Erregea eta bere administrazioa oso urruti zeuden eta egin zezaketen kontrola oso ahula zen. Bera, ordea, oso hurbil egon zitekeen eta komunitateen gainean egin zezakeen presioa oso handia. Orduko liskar politikoak aprobetxatuz, pertsona eta lurren jabe bihurtzea ez dirudi oso zaila izan zitekeenik.

VIII. 7. Guden eragina.

Lan honetan zehar guden eragina behin eta berriz aipatu dugu, baina eragin hau zehazteko hiru bereziki aipatu nahi nituzke.

VII.7.1. Gudak bizitza eta ondasunak galtzeaz gain beste eraginak ere baditu. K.a. III. milurtekoetik aurrera gudak izan dira esklabo bihurtzeko bide nagusia Guda bat galdu ostean herri guztiak esklabotzan jausteko arriskupean egoten ziren, batez ere esklabotza sistema sozio-ekonomiko gisa garatu eta zaldu zenetik. Alexander Handiaren ondorengoen garaian hainbeste guda zela eta, Ekialde Hurbil osoa esklabo azoka

⁹¹ KREISSING, H.: op cit, 206-207.

erraldoi bihurtu zen Greziara eta Erromara milaka eta milaka esklabo bidaliz. Ondorioek ez dute beste azalpenik behar.

Guden eraginik nagusienetariko bat, herri osoen erbesteratze orokorrak izan ziren. Ezagunenak juduenak izan ziren, baina ez bakarra. Hona hemen, preso hartutako judutar batzuen irudia.



VII.7.2. Gudek biztanleria osoen mugimendua ere badakarte. Sustraiak galdu egiten dira eta elkertasun harreman guztiak apurtu egiten dira. Arazoa handitu egiten da mugimendu horiek politika gisa erabiltzen direnean (asiriarren adibidea behin baino gehiagotan

aipatu dugu). Baina arazoa ez da mugatzen mugiaraziak izan diren herrietan, hartzen dituzten herrietara ere zabaltzen da. Bat batean, milaka atzerritar onartu behar da, horientzat lurra utzi behar, bertako lur-egiturak desegituratuz, eta, azkenean, herri bien nahastea. Nahaste honek zenbait lekutan, herrien arteko ezberdintasunak oso handiak badira, arazo handia sor dezake, eta azkenean biak desegituratuta geratu.

VII.7.3. Gudek ere zergak dakartzate. Gudak oso garestiak dira, eta gastu horiek norbaitek ordaindu behar zituen, komunitateek alegia. Ordain mota ez da bat soilik izango, zerga ekonomikoak handituak izango dira eta beste berri batzuk jarriko dira, nekazariak gudarako deituak izango dira... Ondorioak ezin txarragoak izango dira. Komunitateek ahulduta eta guztiak ezabatuak izango dira, horren adibide ederra errege helenistikoek eskaintzen digute. Erromatarrek beren “*pax romana*” finkatu zutenerako komunitateak beren erresistentziaren mugan zeuden, gehienentzat bake aro berria beranduegi zetorren, desegituraketa aurreratuegi zegoen.

IX. ONDORIOAK.

Idazlan honetan, lau mila urtetan zehar garatu zen mendetasun mota bat aztertu dugu. Mendetasun hau bilakaera luze bat izan zela esan dezakegu. Bilakaera horrek

Ekialde Hurbileko egonkortasunaren inguruko ideiak puskatzen ditu zentzurik gabe utziz Zalantzarik gabe, gertatutako bilakaerak askoz konplexuagoa izan behar izan zuen, baina gure iturrien urritasunak ezagupen zehatzak galarazten ditu. Dena den, badaude, nire iritziz, zenbait puntu argi eta horietaz balia gaitetzke.

Bilakaera honi izaera eman beharko balitzaio, komunitateen desegituraketa eman beharko genioke. Ikuspegi iluna eta ezkorra izan daiteke, baina, nire aburuz, hori da, beste ezer baino hobeto, izaera ematen diona. Neolito aroan eratutako komunitate-egiturak, K.a. IV. milurtekoetik aurrera alde guztietatik eta baliabide askoren bidez, eraso gogorak jasan behar izan zituen. Jauretxeak eta beraiekin hiriak sortzean, komunitateek lehen erasoak pairatu zituzten. Jauretxeek lehenago, eta jauregiek geroago, beren egitura finkatzeko komunitateak erasotzeari ekin zioten, beren menpe jarritz. Orduan hasi zen komunitateak morrontzara eramango zituen bide luzea. Bilakaera, ikusi dugunez, ez zen batera gertatu, ezta leku guztietan modu berean ere. Zenbait gunetatik, Mesopotamiako hegoaldeetik batez ere, alde guztietara zabaldu zen, jauregiak zabaltzen ziren heinean. Batzuetan, jauregiak porrot egitean edo gainbeherak jasatean, komunitateak berrindartzen ziren, edo bestela, ibilkarien komunitateak finkatzen ziren, hortxe ditugu juduak lekuko gisa. Jauregiaren nagusitasuna, ordea, laster, berrinposatzen zen. Poliki-poliki lortutako mendetasun hori ez zen leku guztietan modu berekoa. Honen ondorioz, aurkituko ditugun egoerak oso desberdinak izango dira. Izan ere, zenbait herrik beste batzuek baino hobeto egin ahal izan zieten aurre zetozen erasoei. Hori zergatik gertatu zen azaltzea ez da erraza, arrazoi asko egon baitaitezke: herri indartsuagoak izan, edo aberatsagoak, edo baliabide askoren jabe izan... nork daki! Baina komunitate askok mendetan beren egiturak gorde ahal izan zituzten, jauregiarena gainean egon arren.

Zalantzarik gabe, geografiak ere bere eragina izango zuen, inguruko baldintzak ez ezik, hauek oso garrantzitsuak baziren ere, merkataritza-bide nagusietatik urrun edo

hurbil egotea kontuan hartu behar, beren eragina oso handia izan zitekeelako. Merkataritza-bide nagusietatik zenbat eta hurbilago egon, orduan eta eragin handiagoa jasan behar zuten herri hauek. Horregatik, erromatarren agindupean, beren egitura finkatuagoa zuten komunitateek eskualde baztertuenetan kokatzen ziren, hau da, merkataritza-bide horietatik urrun.

Aspektu hauek guztiek beren ondorioak izango zituzten eta ondoriorik garrantzitsuena mendetasun egoeraren ugaritasuna izango da. Ikertzaileak gehien nahasten dituen arazoa ugaritasun hori da. Horregatik gu ahalik eta izen gutxien aipatzen saiatu gara. Baina hortxe daude greziarrek ezagututako zenbait egoera: “*hieroduloi*”, “*somata*”, “*douloi*”, “*laoi basilikoï*”, “*laoi panoikoï*”, “*laoi*” arruntak, “*georgountes*”... Horietako askoren egoera esklaboenarekin pareka daiteke, hitzak horiek ere aipatzeko erabiltzen baitziren. Batzuetan, izen bereizketa besterik ez dela dirudi, agian antzinako ezberdintasunak zehazteko, baina, azkenean, denak maila bereak kokatu ziren. Beste batzuetan, ordea, egoera desberdinak aipatzeko ere erabiliko ziren, baina egoerak zehaztea ezinezkoa zaigu eta guretzat izenak baino ez dira.

Hala ere, badaude egoera ezagunagoak, naiz eta zehaztasun handirik barik. Hortxe ditugu, esate baterako, Hamurabi-ren garaiko “*muskenu*”-ak. Errege honen Legediaren arabera, argi dago komunitateetatik kanpo zeudela (eskubide eta zigor desberdinak zituzten). Bigarren mailako “klase” bateko partaideak dirudite, baina erregeak babesten zituen. Egoera horrek komunitateetatik atera eta jauregiaren morroiak izatera pasatu zirela pentsarazten diezaguke, baina hipotesia besterik ez litzateke izango. Komunitatetik landa geratu zen jende mota dela, eta horregatik eskubideak galdu zituzten eta erregearen babesa beharrezko egin zitzaiela esan dezakegu soilik ziurtasun osoz.

Persiarrena bezalako inperio erraldoietan ere egoerak oso ugariak izan lirateke, herri menderatu bakoitzak bere mendetasun mailarekin. Jauregiak komunitate eta herri bakoitzarekin, eredu zabal baten baitan, behar adina harreman onartuko lituzke.

Beste arazo bat mendetasun horren ondorioz egoera areagotzea, baina, oro har, ez aurretik prestatutako politika baten ondorioz. Honen aurka milaka urteetan zehar luzatu zen ohitura zegoen. Gizarte barneko harreman guztiek betiko ohiturei jarraitu behar zien. Ohitura hauek apurtzeak gizarte-harreman guztiak kolokan jartzea ekarriko zukeen. Lugalandaren adibidea oso nabarmena da.

Jauregiak, beste aldetik, bere ideologiaren muga ere bazuen. Horrelako ustiapen sistema zabaletan bere oinarriak parte biak, nekazari-komunitatea eta jauregia, lotzen zituen. Mendeetan zehar aldaketa batzuk agertu baziren ere, badago sistema sendo eta iraunkor bat. Sistema horretan erregeak jaikoen adostasuna eta laguntza lortzeaz gain, nekazariei munduko etsaien aurka babeska eskaini behar zien eta hemendik sortu zen errege-artzainaren irudia. Horregatik asiriarrek beren ideologia menderatzailearekin irudi honen aurka jartzean, desegituraketari bultzada itzela eman zion leku askotan. Hori dela eta, erregeak ezin zuen neurri baten gaindi ustiapena handitu, babeslea izatetik etsai bihurtzeraino helduko bailitzateke, eta, askotan, aipatutako asiriarren adibideak argi uzten ditu sortzean zituen arazo guztiak.

Beste arazo bat da, mendetasun horren ondorioz, egoera areagotzea. Aipatu dugunez, mendetasun egoera finkatuz gero, bilakaera luze bati hasiera ematen zaio. Bilakaera honetan, hemen azkarrago eta han motelago, komunitateek beren egoera larriagotzen eta beren bizitza desegituratzen ikusiko zuten eta ezin izango zuten horren aurrean ezer egin, izan ere mendetasun egoera berak galarazten zien.

Desegituratze-bide horretan komunitate barneko talde batzuek lagunduko zuten. Jabego pribatuaren bidean zenbait talde edo familia onuradun bihurtuko ziren, *komarka*

bezalako buruak, adibidez; komunitatearen eta jauregiaren arteko papera egitean, jauregiaren laguntza eskuratuko zuketean eta herrixkaren nagusitasunaren truke jauregiaren morroi bihurtzea ez litzateke harrigarria. Beren lanaren truke zergarik eza lortzeak komunitatearen baitan bereiziko lirateke. Komunitateetan eratzen ari zen oligarkia txiki hori hirietako oligarkia aberatsarekin harremanetan jarriko litzateke hiriekiko mendetasuna handituz.

Beraz, zerbait argi badago zera da: mendeetan zehar izandako bilakaeraren ondoren komunitateen mendetasuna morrontza orokorra bihurtu zen. Nola heldu zen puntu honetara azaldu beharra dago, beste aldetik. Behin baino gehiagotan aipatu dugu ideologiaren garrantzia egoera hauek azaltzean. Beste eskualdeetan gertatutakoaren aurka, Ekialde Hurbilean mendetasun adostasun ideologiko baten ondorioa dirudi. Eskualde honetan, salbuespen batzuk izan ezik, jauregiaren nagusitasuna ezbairik gabe onartu zen. Indar armatu baten beharra ez dago ukatzerik, baina harritzekoa da ikusten dugun bake egoera mendeetan zehar. Bakeaz ari garenean matxinada orokor edo iraultzarik ezaz ari gara. Ez dugu, hala ere, arazorik gabeko harreman baketsuez pentsatu behar. Iturriek behin baino gehiagotan aipatzen dituzte komunitateen eta jauregiaren arteko eztabaidak, baina, antza denez, ez zuten suposatzen sistema osoa kolokan jartzea. Arazoak, agian, guk uste baino ugariago izan baziren ere, ez dute matxinada orokorrera bideratzen, ezta sistema osoaren aurkako iraultzara.

Ezagutzen dugun matxinadarik nagusiena Aristonikosena, K.a. 133 urtean, da, baina guda zibil baten barruan gertatu zen eta ez dago zehazterik zer zen liskar politikoa eta zer matxinada soziala. Matxinada honi buruz esan dezakeguna zera da: bere helburu politikoak lortzeko pertsonai bat, Aristonikos, beren egoerarengatik nekazarien haserreaz baliatu zela. Nahiko helenizatuta, eta horregatik nahiko desegituratuta, zegoen

Pergamo erresuman nekazari-komunitateak matxinatu ziren, baina helburu politikorik ala sozialik zuten esatea ezinezkoa zaigu.

Azaldutako azken adibide honek, nolana, adostasun orokorraz hitz egiten digu. Jauregiak, denboran zehar, ideologia aproposa lortu zuen bere helburuak lortzeko, eta, ondorioz, mendetasuna eta jauregiaren ideologia elkarrekin aritu ziren inolako eztabaidarik bako mendetasuna finkatzeko.

Greziarrek lehenago, eta erromatarrek beranduago, jauregi-egitura deuseztatu zuten arren, nekazarien mendetasun egoera ez zen, horregatik, aldatu. Erromatar inperioaren garaian, lur guztiak hiri eta hiritarrenak ziren, nekazariak hauen morroiak zirelarik.

K.o. III. mendeko krisialdiaren ondorioz, egoera zeharo aldatzen hasi zen. Diokleziano enperadoreak egindako erreformen ondoren, nekazariak lurrari finkatuta gelditu ziren. Egoera larria zela eta, lur asko hutsik geratu ziren. Orduan Inperioak bere gastuei erantzuteko zerga kopuruak hazi egin zituen, hiriek beren gainbehera hasi zuten; talde batzuk, senatarien maila, aberasten eta indartzen ziren bitartean, Estatuak, bere betiko babesaren eman ezinik, nekazariak babesaren bila senatari maila honen menpe jarri ziren, beste egoera berri bat sortuz: “kolonoarena”, alegia. Egoera honek Mendebaldean lurrarekiko morrontza feudaleraren eraman zuen bidaiaren hasiera izan zen, baina Ekialdean bilakaera ez zen hain azkarra izango eta ez da Europan bezala gauzatuko.

X. BIBLIOGRAFIA.

Oharretan agertzen den bibliografiaz gain, zerrenda honetan beste zenbait aipamen bibliografiko agertzen dira, nahiz eta idazlanean zehar agertu ez diren; baina, irakurlearentzat lagungarri izan daitezke.

ALGAZE, G. [(2)2005]: *The Uruk World System. The dynamics of expansion of Early Mesopotamian Civilization*. The University of Chicago Press, Chicago/London.

AVDIEV, V. I. (1986). *Historia económica y social del Antiguo Oriente. II. Reinos y estados II y I milenios*. Akal, Madril.

BRIANT, P. (1982): Remarques sur les “*laoi*” et esclaves ruraux en Asie Mineure Hellénistique, in *Rois, tributs et paysans. Études sur les formations tributaires du Moyen Orient Ancienne*, Les Belles Lettres. Presses universitaires de Franche-Comté Paris, 93-133.

BRIANT, P. (1982): Villages et communautés villageois d’Asie Achéménide et Hellénistique. in *Rois, tributs et paysans. Études sur les formations tributaires du Moyen Orient Ancienne*, Les Belles Lettres. Presses universitaires de Franche-Comté, Paris, 137-160.

BRIANT, P. (1982): Contrainte militaire, dépendance rurale et exploitation des territoires en Asie Achéménide. In *Rois, tributs et paysans. Etudes sur les formations tributaires du Moyen Orient Ancienne*. Les Belles Lettres Presses universitaires de Franche-Comté Paris, 175-225.

BRIANT, P. (1982): Colonisation hellénistiques et populations indigènes. In *Rois, tributs et paysans. Etudes sur les formations tributaires du Moyen Orient Ancienne*. Les Belles Lettres, Presses universitaires de Franche-Comté Paris, 227-262.

BRIANT, P. (1982): Des achéménides aux rois hellénistiques : continuités et ruptures. In *Rois, tributs et paysans. Etudes sur les formations tributaires du Moyen Orient Ancienne*. Les Belles Lettres Presses universitaires de Franche-Comté Paris, 291-330.

BRIANT, P. (1982): Conquête territoriale et stratégie idéologique : Alexander le Grand et l’idéologie monarchique achéménide. In *Rois, tributs et paysans. Etudes sur les formations tributaires du Moyen Orient Ancienne*. Les Belles Lettres Presses universitaires de Franche-Comté Paris, (357-403).

BRIANT, P. (1982): Communautés rurales, forces productives et mode de production tributaire en Asie Achéménide. In *Rois, tribut, et paysans. Etude sur les formations tributaires du Moyen Orient Ancienne*. Les Belles Lettres, Presses universitaires de Franche-Comté Paris, 1982, 405-428.

- BRIANT, P (1982): Forces productives, dépendance rurale, et idéologies religieuses dans l'empire achéménide. In *Rois, tributs et paysans. Etudes sur les formations tributaires du Moyen Orient Ancienne*. Les Belles Lettres Presses universitaires de Franche-Comté Paris, 430-473.
- BRIANT, P. (1982): Appareils d'état et développement des forces productives au Moyen-Orient ancien : le cas de l'empire achéménide. In *Rois, tributs et paysans. Etudes sur les formations tributaires du Moyen Orient Ancienne*. Les Belles Lettres Presses universitaires de Franche-Comté Paris, 475-489.
- CASSIN, E., BOTTERO, J. eta VERCOUTER, J.(1979): *Imperios del Antiguo Oriente*. 3 liburuki. Siglo XXI Madril.
- CHILDE, V. G.(1982): *Los orígenes de la civilización*. F.C.E. Mexiko.
- COHEN, G. M.(1981): *The Seleucids colonies. Studies in founding administration and organization*. The American Historical Review, 86:1075, December, Chicago.
- DANDAMAYEV, M. (1979): Le statut juridique de l'ikaru neo-babylonien. In *Terre et paysans dépendants dans les sociétés antiques* . CNRS Paris .
- DANDAMAYEV, M. (1982): Achaemanid Babylonia. In *Ancient Mesopotamia. Socioeconomic History*. Liechtenstein, 296-311.
- DIAKONOFF, I. M. (1982): The Rise of de Despotic State in Ancient Mesopotamia. In *Ancient Mesopotamia. Socioeconomic History*. Liechtenstein, 173-203.
- DIAKONOFF, I. .M. (1982): "Agrarian conditions in Middle Assyria", in *Ancient Mesopotamia. Socio-economic History*, Liechtenstein, 204-234.
- FALES, F. M. (1988): "La estructura social", in S. MOSCATI (arg.), *EL alba de la Civilización. Sociedad, economía y pensamiento en el Próximo Oriente Antiguo*. Ediciones Cristiandad, Madril, 167-290.
- FALKENSTEIN, A. (1954): "La Cité-temple sumerienne", *Cahiers d'Histoire Mondiale*, I/4, Neuchâtel, 784-815,
- FRANKFORT, H.(1983): *Reyes y dioses. Estudio de la religión del Oriente Próximo en tanto que integración de la sociedad y la naturaleza*. Alianza, Madril.
- GARELLI, P.(1975): Les temples et le pouvoir royale en Assyrie du XIVeme au VIIIeme siècle. In *Le temple et le culte, 116-124*, Leiden.
- GARELLI, P.(1978): *El Próximo Oriente asiático. Desde los orígenes hasta las invasiones de los Pueblos del Mar*. Labor, Bartzelona.
- GARELLI, P. eta NIKIPROWTZKY, V. (1977): *El Próximo Oriente asiático. Los imperios mesopotámicos. Israel*. Labor, Bartzelona.

- GALLAGHER, J. eta ROBINSON, R.(1953): The Imperialism of Free Trade. In *Economic History Review*, 2d series 6, Bristol,1-15.
- GALLAGHER, J. eta ROBINSON, R.(1961): *Africa and the Victorians*. MacMillan. London.
- JOANNÈS, F. (2004): La dépendance rurale en Babylonie VIIe-IV-e siècles av. J.C. in Bernardette Menu editorea *La dépendance rurale dans l'Antiquité égyptienne et proche-orientale*. Institut Française d'Archéologie orientale. Le Caire, 239-251
- KLIMA, J.(1983): *Sociedad y cultura en la antigua Mesopotamia*. Akal, Madril.
- KREISSING, H.(1977): Propriété foncière et formes de dépendance dans l'hellénisme oriental. In *Terre et paysans dépendants dans les sociétés antiques*. Paris, 197-215.
- KUHRT, A.(2001) : *El Oriente Próximo en la Antigüedad. 1. C.3000-330 a.C.* Crítica. Bartzelona.
- KUHRT, A.(2001) : *El Oriente Próximo en la Antigüedad. 2. C.3000-330 a.C.* Crítica, Bartzelona.
- LIMET, H.(1979): Le rôle des palais dans l'économie neo-sumérienne. In *State and temple economy in the Ancient Near East I*. Leuven 235-248.
- LIPINSKI, E.(1979): Les temples neo-assyriens et les origines du monnayage. In *State and temple economy in the Ancient Near East*. Leuven, 565-588.
- LIVERANI, M.(1976): Il modo de produzione. In *L'Alba della civiltà. Società, economia e pensiero nel Vicino Oriente Antiquo*. II. UTET, Torino, 3-126.
- LIVERANI, M.(1982): Ville et campagne dans le Royaume d'Ugarit. Essai d'analyse économique. In *Societies and language of the Ancient Near East. Studies in honour of I. M. Diakonoff*. Westminster, 250-257.
- LIVERANI, M.(1987): La estructura política. In *El alba de la civilización. Sociedad, economía y pensamiento en el Próximo Oriente Antiquo*. I. Cristiandad, Madrid, 291-430.
- LIVERANI, M.(2005): *Más allá de la Biblia. Historia Antigua de Israel*. Crítica, Bartzelona.
- LIVERANI, M (2008): *El Antiquo Oriente. Historia, Sociedad, Economía*. Crítica, Bartzelona.
- LOZANO, A.(1984): La esclavitud en Asia Menor helenística. Mikrofítaxa. Oviedo.
- MATHIAE, P.(1988): "El hombre y el entorno" in S. MOSCATI (arg.), *EL alba de la Civilización. Sociedad, economía y pensamiento en el Próximo Oriente Antiquo*. Cristiandad, Madrid, I, 35-166.

PIAGGOT, S. eta beste batzuk (1988): *Historia de las civilizaciones. El despertar de la civilización*. Alianza-Labor, Bartzelona..

RENGER, J. (1979): "Interaction of temple, palace and "private enterprise" in the old Babylonian economy" in *State and temple economy in the Ancient Near East*, Peeters Publishers, Leuven, .

ROSTOVTZEFF, M.(1965): *Historia social y económica del mundo helenístico*. 2 liburuki.. Espasa-Calpe, Madril.

ROSTOVTZEFF, M.(1981): *Historia social y económica del Imperio Romano*. 2 liburuki. Espasa-Calpe, Madril.

ROUX, G. (1987): *Mesopotamia. Historia política, económica y cultural*. Akal, Madril..

SAHLINS, M. (1978): *Economía de la Edad de Piedra*. Akal, Madril.

SZLECHTER, E. (1958): "De quelques considérations sur l'origine de la propriété foncière privée dans l'ancien Droit Mésopotamien, *Revue Internationale des Droits de l'Antiquité*, tome V, Liège, 121-136.

SZLECHTER, E. (1965): La loi dans la Mésopotamie ancienne. *Revue Internationale des Droits de l'Antiquité*, tome XII, Liège, 55-77.

SZLECHTER, E. (1978) : Les lois d'Eshunna. *Revue Internationale des Droits de l'Antiquité*, tome XXV, Liège, 109-219.

TYUMENEV, A. I. (1982): "The working personnel on the state of the temple of d-Ba-ú in Lagash during the period of Lugalanda and Urukagina. (25th.-24th. Cent. B.B.), in *Ancient Mesopotamia. Socioeconomic History*, Liechtenstein, 70-87.

VARGYAS, P. (2004): La monétisation de l'économie rurale en Babylonie et en Égypte pendant le Ier millénaire av. J.C. in Bernardett Menu editorea *La dépendance rurale dans l'Antiquité égyptienne et proche orientale*. Institut Française d'Archéologie orientale. Le Caire, 109-120.

WALLERNSTEIN, I. (1979): *El moderno sistema mundial. La agricultura capitalista y los orígenes de la economía-mundo europea en el siglo XVI*. Siglo XXI de España Editores.